

uk

208. zenbakia / 2012ko otsailaren 13a



URTERO 20€

Urtero UK aldizkariaren 20 zenbaki
 Urtero Uribe Kostan gertatzen denaren berri
 Urtero eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean
 Urtero argazki zahar eta barriak
 Urtero zure proiektuak lau haizetara
 Urtero 20 euro

uk  Harpidetu eta jaso UK zure etxean, hamabostero. Urtero 20 euro.

www.ukaldizkaria.biz neuk ere gura dot UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz

Dacia Sandero
5.790€¹ tik hasita



Dacia Duster
10.400€² tik hasita



URTEBETEZ³ ASEGURUA DOAN

Dacia GROUPE RENAULT  Dacia España  Dacia ESP 

www.dacia.es


1.) Publikoarentzako Salmenta Prezioa, Penintsularako eta Balear uharteetarako, 2012ko otsailaren 29a arte, partikular batek edo autonomo batek Sandero Base 1.2. 2.55 Kw (75cv) erosteko. Zergak barne, RCI Banque Sucursal en España finantzatzuz gero. Horrez gain, 500€ ko beherapena Publikoarentzako Salmenta Prezioan, finantziarioari lotua. Finantziatu beharreko gutxieneko zenbatekoa 4.000€. RECSA diruz lagundutako beherapena, finantziarioari lotua, Sandero gamako edozein ibilgailutan. **2.)** Publikoarentzako Salmenta Prezioa, Penintsularako eta Balear uharteetarako, 2012ko otsailaren 29a arte, partikular batek edo autonomo batek Duster Base 1.6 77kw (105CV) bat erosteko. Zergak barne, RCI Banque Sucursal en España finantzatzuz gero. Horrez gain, 1.000€ ko beherapena Publikoarentzako Salmenta Prezioan, finantziarioari lotua eta bateragarria doako aseguruarekin. Finantziatu beharreko gutxieneko zenbatekoa 4.000€. RECSA diruz lagundutako beherapena, finantziarioari lotua, Duster gamako edozein ibilgailutan. **3.)** Arrisku orotako aseguru, doakoa, lehenengo urtean, 300€ ko frankiziarekin 30 urte tik gorako bezeroentzat, eta 600€ koa 30 urteko bezeroentzat, MAPFRE konpainiarekin. Dacia gamako ibilgailu berri bat 2012ko otsailaren 29a arte erosten duten partikularentzat eta autonomoentzat, RCI Banque Sucursal en España (finantziatu beharreko gutxienekoa: 4.000€), RCI Banque Sucursal en España oparitutako aseguru. **4.)** Aurreneko bi urteetako bermea, kilometro-mugarik gabe. Bigarren urteetik aurrera, bermea amaituko da 2 baldintzetatik bat gainditzen denean. Irudietako modeloak: Duster Laureate 1.6 77 Kw eta Sandero Laureate 1.55Kw.

Dacia Sandero: Kontsumo mistoa (l/100Km) 4,0tik 7,3ra. CO₂ isuria (gr/Km) 104tik 169ra.
Dacia Duster: Kontsumo mistoa (l/100Km) 5,0tik 8,0ra. CO₂ isuria (gr/Km) 130tik 185era. 

GAURSA Arriandi, 12. Tel. 94 620 33 00. Iurreta · Gran Vía, 65. Tel. 94 441 74 50. Bilbao
LEIOA BERRI AUTO Iparragirre Etorbidea, 24. Tel. 94 480 42 90. Leioa

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
 HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
 ZUZENDARIA: Irantzu Sagarmínaga
 ERREDAKZIOA: Zuberora Iturburu, Julen Nafarrate, Nerea Gijarubia, Irantzu Sagarmínaga
 FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
 TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
 KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Eguro, Fredi Paia, Armando Llamas, David Crestelo Kres, Algortako Berts Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte
 MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
 PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martínez (944 911 337)
 FILMAZIOA: Laster Grafika S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
 ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

 Getxo UDALA - AYUNTAMIENTO Euskara zerbitzua	
 Leioa UDALA - AYUNTAMIENTO Euskara Zerbitzua	 Ybilla
 Erandioko Udala	 Sopelana Udala
 Urdulizko Udala	 Plentziako Udala
<p>TRATU TXARRREN BIKTIMAK ARTAZTEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111</p> <p style="text-align: right;">Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du</p>	
 BFA DFB Bizkaiko Foru Aukundia Diputación Foral de Bizkaia Kultura Saila Departamento de Cultura	

Non zer

4. PLAZA.
5. IRUDIA. Abra dragatzearen aurkako ekimena.
6. FACEGUK. Zertaz ez zinazteke mozarrotuko?
7. LEHEN ETA ORAIN. Getxo, 1965.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Mari Carmen Miguel Saiz.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Arantzaleak.
28. ARGAZKIA. Algortako tren-geltoki zaharra.
30. BERBETAN. Itziar Ziga.
34. FOTOGRAFIA. Sergio Gardoki.
40. SAKONEAN. Abran dragatzeko egitasmoa.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Zinegoak eskualdean.
43. MUSIKA. Audience plays *Amerikanuak* Leioan.
44. LIBURUAK. *Hitzeko Txalupak*, Josu Martinez.
45. KIROLA. *Skate indoor* txapelketa.
46. ELKARRIZKETA. Euskal Memoria Fundazioko Nuria Alzugarai.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Oilasko brotxeta.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Txarriboda Sopelan.
54. AITORMENAK. Alaia Martin.

Azala: Sergio Gardoki

www.ukaldizkaria.biz



30 Itziar Ziga

Berbetan

Feminismoaz, probokatzeaz, *Sexual Herria* azken liburua, aurreko lanez e.a. jardun dugu errenteriarraz.



11 Mari Carmen Miguel Saiz



54 Alaia Martin

aldizkaria etxean jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
 Kalea/zenb..... Herria.....
 e-mail.....
 Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro
 beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa. 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

Leihatila

> Amaia Arriaga

Ekologistak

Nor baino nor ari dira sektore publikoan artaziak sartzen eta dena desegin arte ez dute, antza, bakerik emango. Ezagun dugun estiloan, lehenengo kriminalizatu egin dute "defizit publikoa" eta, gero, gogor jo horren aurka, garaile eta galtzaileen diskurtsoari jarraituz 'publikoa' makurrarazi eta 'pribatua' nagusitzeko.

Bide horretan pausu arinean doaz gure inguruko udalik gehienak ere, haizea poparean, legea lagun: ezin lanpostu berririk sortu, ez ordezkapenik egin zerbitzu publikoak garatzeko. Horrela, 'behartuta', enpresak hartu behar lanak egiteko, hori ez baitu legeak debekatzen.

Pribatizazioak sustatu eta enpresa handiei lagunduta, ondasunak gutxiengo txiki baten eskutara bideratzen dituzte, sentiberatasun ekologikoari jarraituta, seguruenik: erosteko ahalmena gutxituta, langileen eskura auto, bigarren etxebizitza eta aire bidaia gutxiago izango denez, mesede galanta ingurumenaren iraunkortasunari!

gu geu

Martiriei maitasun gutuna

Sarri azaleko laguna legez sentitzen gara, baina gurea ez da kartatuen pisua. Batzuek esango dute lar egiten dugula negar, arrazoi barik egiten dugula askotan... Besteek malkorik isurtzeko "gogorrekiak" garela, beti erasora jotzeko joera hobesten dugula... Hainbatek: "beti eskean!"

Guk, otsailaren 14a diruz bakarrik ordaindutako opariz ospatuko dutenen eurrean, barrubarrutik ezagutzen ez gaituztenen eurrean, gure martiriei abestuz, aldarrikatuko dugu: maite dugulako egiten dugula negar, maite beste negar; maite dugulako defendatzen dugula, eraso liteken defentsa-borrokan; lau haizeek gure malkoak eroango dituztela maite dugulako; maite-minez negar egin eta pozten garelako... Maite dugulako euskara, euskaraz bizitzea, harremanak euskaraz izatea, euskaraz eta euskaragatik izerditan ipintzea, euskaraz oheratzea, euskaraz albisteak hedatzea, euskaraz alkarrizketak izatea, gure lana euskaraz gauzatzea... Bide eta bikotekide barriak ezagutu beharko ditugu, estrainekoz ohiko maitaleak alboan ibilaldi hori abiatu; baina plazera, plazera euskaraz izan dadila!!!

Aurreko UK-etako Gu Geu-en jarraipena duzu hau, irakurle! Kopetilan orduan, itxaropentsu gaur... UK-ko irakurleak eta UK egiten laguntzen duzuenak behar beste maite zaituztegelako!! Eskerrik asko!

UK-ko lantaldea

Iritzia

Urte amaieran jasotako Argia Ereiten saria dela eta berba batzuk eskatu dizkiogu oraingoan UK-ko kolaboratzailea den Bittor Egurrolari. Horra bere gogoeta:

Argia Ereiten (2. edizioa)

Ezin esan joan den urtea txarra izan denik, ez niretzat, ez nire familiarentzat. Guretzat 2011. urtea ekainaren 7an hasi zen zorionez, egun horretan heldu zelako Ibai nire semearekiko Gorenaren erantzun

«**Harridura, poza eta esker ona!**»

(Berria, 2011-6-8). Guztiok suposatzen duzue zer esan nahi du honek gure familiarentzat eta edozein familiarentzat.

Eta ekainetik goazen azarora. Getxoko Euskararen Jardunaldien barruan "Binilotik sarera, lau akorde" ekitaldian parte hartzeko gonbidapena jaso nuen, zerbait kantatzeko eta zerbait esateko 60-70eko hamarkadei buruz. Eta horrela egin nuen azaroaren 24an Algortako Eztabaida Gunean. Parte hartzeak aukera eman zidan

zoragarria: "Auzitegi Nazionalak zigortutako lau gazte (Ibai, beste algortar bi eta leioaztar bat) absolbitu ditu Gorenak, eta torturak ez ikertzea salatu du"

neure familia osoaren aurrean lehen aldiz kantatzeko gitarraz lagunduta "Andereño" eta "Umezurtza"; aurreko urtean berdin gertatu zitzaidan "Unibertsalak" kantarekin Andres Isasi Musika Eskolan.

Aipatu dudun ekitaldirako zerbait presatzen ari nintzela, astebete lehenago azaroaren 17an, udaletxean izandako bilera batean esan zidaten Argia Ereiten, 2. edizioko saria niri ematea erabaki zutela. Harridura, poza eta eskerrona. Hiru hitz horietan laburbiltzen dut une horretan udaletxean, geroago eta oraintxe bertan sentitzen dudana. Dena dela, zenbat euskaltzale ezagun eta ezezagun egongo den Getxo osoan (ikastolen sorreran, "Gau eskolak" garaian, ALBERen historian, hainbat arlotan jardundakoak...)! Eta zenbat lan egin duten! Neuk beste eta gehiago.

Heldu zen azaroaren 30a, sariaren eguna eta Imanol Landa Getxoko alkatearen eskutik jaso nuen Luis Artolak, gipuzkoar artistak egindako egurrezko eskultura polita, Faduran egindako ekitaldi hunkigarrian. Oso pozik egon nintzen eta asko gozatu nuen. Udala eta herritarrak sintonian, lagun arteko giroan, zorionak eta argazkiak handik eta hemendik... oso hunkigarria. Eta teknikoki oso ongi prestatua. Sariari buruz pozgarria da ikustea pertsona batzuek zuk egindako lan txikia kontutan hartzea. Nik sinesten dut lan txikian baina etengabe, elkarrekin.

Ez nintzateke gustura geratuko, nire "txapa" eskerrak eman gabe amaituko banu: Getxoko Udalar, aukeratu ninduzuen elkarteei, nirekin azken 20-25 urtetan izandako lankide guztioi, Faduran egon zineten lagun/ezagun... guztioi eta etortzerik ez zenutenoi, hainbat hedabidetako teknikari/argazkilari/teknikariei; azkenik kalean/telefonoz/internetez zoriondu nauzuen guztioi.

ESKERRIK ASKO ETA MOSU BANA

Bittor Egurrola
(gernikar Algortaratua)



ALGORTAKO PORTU ZAHARRA, URTARRILAREN 28AN

Hondar kroketa potoloa...! Abrako hondotik 49 milioi metro kubiko hondar atera gura dute, ondoren, betegarri gisa erabiltzeko hainbat proiektutan; besteak beste, Getxoko bidaieren-ontzietarako kai barria egiteko. Eta nahikoa zalaparta sortu da. Baterik, Bilboko Portuko Agintaritzak, proiektuaren arduraduna; besterik, Getxoko Udala, ikerketa sakonagoa eskatu duena; eta, azkenik, Getxoko eragileak, Abra Bizirik Getxoko Plataforma osatu dutenak. Argazki honetan ikus daitezke burutu duten lehen mobilizazioak: dragatzerik ez egiteko eskatu zuten urtarriaren 28an, Algortako Portu Zaharrean. ○ / Argazkia: Mikel Martínez

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugul!

Zertaz ez zinateke inoiz mozorrotuko?



Algorta

Irati

> ikaslea

Ez nintzateke *cat-womanez* inoiz mozorrotuko. Izan ere, pornoegia da, eta hemengo eguraldiagaz sekulako hotza pasako nuke. Katuz mozorrotzekotan benetako katuz jantziko nintzateke, horrekin ez bainuke hotzik pasako.



Algorta

Laia

> ikaslea

Behin, txikitik sevillanaz mozorrotu nintzen eta ebaki bat egin nuen buruan. Hura esperientzia txarra izan zen, eta ez daukat oroitzen onik. Horregatik ez nintzateke inoiz gehiago sevillanaz mozorrotuko.



Algorta

Mikel

> diseinatzaile grafikoa

Orain dela urte batzuk pikoletoz mozorrotu nintzen kuadrilagaz, egun horretan Algortan, MCD-ren kontzertua zegoen, eta etxera joan behar izan genuen mozorrotu aldatzera. Hori dela eta, ez nintzateke pikoletoz berri mozorrotuko.



Algorta

Miguel Atutxa

> muralista

Ez nintzateke inoiz andrez mozorrotuko, agian neskatzaz bai, baina andrez inoiz ez. Makillajea ez zait batere gustatzen, eta andrez mozorrotzeko, ezpainak margotu eta neure burua makillatu beharko nuke.



Algorta

Itziar Nieto

> diseinatzailea

Ez daukat inolako arazorik edo zertaz mozorrotzeko. Mozorrotzea asko jantzi ditut: lapurra, gatorock..., beste batzuen artean. Beraz, edozein jantziko nuke.




Sopela

Jose Carlos Quintanilla

> jubilatua

Ez nintzateke inoiz txerriz mozorrotuko. Esaten dute mozorrotzen zaren horretaz zerbait daukazula. Esaterako, emakumez mozorrotzen direnek emakumeen zerbait daukate, gauza bere politikariz mozorrotzen diren horiekaz. Eta nik ez daukat txerriaren ezer.



[lehen]



[orain]

Iraganez doa denbora* beti / EREAGA (GETXO), 1965

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > guk ez dugu ezer irensten



San Martin jaietan, Hezetasun auzoa (Algorta), 2011ko azaroa

Testua: **Beñat Vidal** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: sagutxo batzuekin

Irudi honek zera gogorarazi dit; itxura hori ez du igelak bakarrik... Ai! Bat baino gehiago ikusia dut nik, sofan erdi botata beste ezer barik telebistari adi ahoa zabalik.

Albistegiei heltzen zaie bere txanda, albisteen bitartez sasi-propaganda, berunezko diskoak gabiltz ezin janda. Irensten ez dugunak musturrean danba! jotzen digu, gainera galanta emanda.

Askoz hobeto gaude igelak ahaztuta, irentsi nahi duguna guk geuk hautatuta. Ahorik ez ba itxi, kontuan hartuta hobe dugula ozen aldarrikatuta, guk gure eskualdean daukagula UK!

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal lezaguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz



www.nieuskaldun.metro.es bideo-bloga

“Ni euskalduna!” > aitite-amamen bloga

Euren herri eta bizimoduaren inguruko istorioak kontatzen dituzte “Ni euskalduna” blogean agertzen diren aitite-amamek. Metroo sare sozialak Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren laguntzagaz, *Nieuskalduna!* izeneko bloga martxan jarri du. Proiektuaren helburua herrien historia eta euren euskalkiak batzea da, eta bide batez, adineko pertsonak

teknologia barrietara hurreratzea. Oraingoan, bloga Araba, Bizkaiko eta Gipuzkoako herrietako kontuak soilik jasotzen ari den arren, laster, Nafarroa zein Ipar Euskal Herriko istorioak jasotzen hasiko dira. Bideo-bloga hasibarra denez, gutxi dira oraindino batutako bideoak. Hala ere, gero eta gehiago dira elkarrizketak egitera animatzen ari diren aitite-amamak. ◯

Maskaradak 2012 > apirileko domeketan

Aurten maskaraden inguruan hainbat gorabehera izan dira; azkenik, baina, Zuberoako Ikasle Ohien Elkarteak iragarri duenez apirileko domeketan ospatuko dituzte Maskaradak. Hasieran, Gamere-Zihigako gazteek antolatu behar bazituzten ere; gertakari larri baten ondoren bertan behera utzi zituzten. Ondoren, Santa Graziko gazteek antolatzea erabaki zuten. Ezbeharrak, ordea, ez ziren hor

geratu eta Santa Graziko gazteek ere bertan behera utzi behar zituzten, beste arazo larri bat tarteko. Askok Maskaraden geroa bermatuta ez zegoela iragarri zuten. Halere, aurten, azkenean Zuberoako ikasleek antolatuko dituzte. Apirilaren 1ean hasi eta domeketan izango dira emanaldiak. Aurten bost herritan egin gura dute, eta hori prestatzeko gazte ugari batuko ei da. ◯



Bost herritan izango dira Maskaradak

Oroigarria > Villanuevari eta Garcia Burillori

Azken hilabeteotan Berangok osasungintzan aritu ziren langile ezagun biak galdu ditu: Jose Ramon Villanueva medikua eta Jose Garcia Burillo praktikantea. Garcia Burillo eta Villanueva ezagunak izan ziren herri osoan euren eskuzabaltasun eta elkartasunagatik. Azken honek, berbarako, Sahararekin lotura estua izan zuen, eta bertara bidaiatu

zuen bertakoei laguntza emateko. Otsailaren 9an urte bat egin du Jose Ramon hil zela, Burillo ordea, geroago hil zen. Asko eman zioten herriari; horregatik, Berangoko lagunek hitz hauek oroitu gura izan dituzte: *Urte askoan Jose Ramonek eta Josek AITA gisa jardun dute Berangoko herritar guztientzat. Bai Jose, bai Jose Ramon profesio-*

nalak izateaz gain pertsona oso solidarioak ziren, eta beti laguntzen zioten behar zuenari; adibidez, Jose Ramon ahal zuen guztietan kanpamendu sahararretara joaten zen. Biek ematen zuten arreta behar bezain laster, zein ordu edo egun zen kontuan hartu barik. Hortaz, beti gogoratuko ditugu izan zirenegatik. Berangoko lagunak. ◯

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrek + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia




DESKARGATU DOAN EUSKERAZ
www.cianoplan.es/baliabideak

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es




Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa

...harria ...lehengo garaiak... ...itsasoa

www.siaazgetaria.com / info@siaazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143



KATALOGOA GETXOKO SALTOKIETAN

Katalogoan agertzen diren produktuak Getxoko saltoki hauetan aurki ditzakezue.

- AIBOA LIBURU-DENDA
- BOLIBAR ELORDUI LIBURU-DENDA
- COSAS LIBURU-DENDA
- ELO LIBURU-DENDA
- GAIK LIBURU-DENDA
- GOBELAURRE LIBURU-DENDA•PAPER-DENDA
- ITXAS-IKUS
- ITZIAR LIBURU-DENDA
- LA GUSANA LIBURU-DENDA
- LA REVISTA
- LAS ACACIAS LIBURU-DENDA
- LOPEZ LIBURU-DENDA
- MAYOR 29 LIBURU-DENDA
- NADAL LIBURU-DENDA
- NEGURI LIBURU-DENDA
- NORAY LIBURU-DENDA•PAPER-DENDA
- ORIXA LIBURU-DENDA
- SAN JOSE LIBURU-DENDA•TABAKO-DENDA
- S. JUAN NEPOMUCENO NAUTIKA LIBURU-DENDA
- TROA LIBURU-DENDA
- ZUGATZARTE LIBURU-DENDA

www.katalogoa.org
www.getxo.net



“Nire irudimena eta besteona garatzea asko gustatzen zait”

Mari Carmen Miguel Saiz > Mozorroen erregina

Villamonte plaza punta batetik bestera hamaika bider zeharkatzen du egunero Mari Carmen Miguelek, pelukak, betaurreko erraldoiak edo jostailu erotikoak eskuan dituela. Berangoztarrak 1987. urtean zabaldu zuen ‘Disfraces Villamonte’ mozorro-denda, izen bereko plazan, Algortan, baina urte gitxira txiki lotu zitzaion: “*Salsidun beste bat zabaltzea erabaki nuen, bestea mozorroz beteta nuelako*”. Egun, denda biak bete ditu mozorro eta osagarriakaz; ‘Ali Babaren kobak’ bezala bataiatu izan dituzte: “*Peluka bat gura duzu? Goazen beste dendara! Zorarena da, baina horrek egiten du denda hau ezberdin*”. Bere tailerrean mozorroak ere sortzen ditu Miguelek: “*Nire irudimena eta besteona garatzea asko gustatzen zait, ona naiz mozorroak interpretatzen*”. Lan batzuk patentatu ere egin ditu: “*Estralurtar edo ‘pirata galaktiko’ batzuk patentatu ditut, Andaluziatik edo Extremaduratik eskaerak heltzen zaizkit*”. Baina mozorroez gain, berangoztarrak bestelako produktuak, agian dibertigarriagoak, saltzen ditu: “*Jostailu erotikoak ditugu... irudimena heltzen den arte! Bakoitzak bere buruagaz jolasteko, askoren artean jolasteko...*”. Emakumeak animatzen ei dira gehiago horrelako jostailuak erosten, bere ustez, baina...: “*Koadrilan datozenean ez, baina bakarrik datozenean mutilak ere denetara animatzen dira!*”. Ea bada, badakizu, aratusteetan ondo pasa mozorro... eta jostailuakaz! ○ Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Asier Mentxaka**

Aratuste, aratuste...

Inauteri-maratoia hasi da: **Romon hilaren 18an** ospatuko dituzte eta **Algortan 18tik 26ra**; lehen asteburua **umeena** izango da eta bigarrena **nagusien inauteria**



Otsailaren 18an umeek kalejira egingo dute Algortan

Zenbat buruhauste mozorroa erabakitze, baina, oraindino ez badakizu zer jantzi, bizkor ibili, hemen dira-eta inauteriak! Romon otsailaren 18an ospatuko dituzte eta Algortan asteburu bitan: 18 eta 19an, umeen txanda izango da eta, 25ean, nagusiena.

Hemen dira inauteriak eta, egun batzuek, aukera izango dugu edozein pertsonaiak jantzeko. Getxon otsailaren 18tik aurrera ospatuko dira.

Romon zapatu horretan izango da ospakizuna. Aurten, umeentzako ipuinetan oinarrituko dira Itzubaltzeta gaztetxea, Ziztu Bizian eskaut taldea, Zasi Eskola dantza taldea eta Erromoko Jai Batzordeak antolatutako ekimenak. Plazan egingo

dituzte egunean zehar ekimenak eta gaueko erromeria; karpa ipiniko dute. Gaueko barriz, mozorro-lehiaketa antolatuta dute tabernek.

Algortan, barriz, lehen astebururako umeentzako jarduerak prestatu ditu

Romon karpa ipiniko dute koadrilen arteko bazkaria izango da otsailaren 25ean

Algortako Jai batzordeak. Eguerdian hasiko dira ekitaldiak: tailerrak, kalejira, txokolate-jana, erromeria edota mozorro lehiaketa. Otsailaren 25ean izango da nagusien txanda eta, besteak beste, koadrilen arteko bazkaria, poteoa eta erromeria izango dira. Ondo pasa! ○

Ekitaldi batzuk

- **Romo, otsailak 18, zapatua:**
 - Umeentzako tailerrak eta jolasak; Santa Eugenia plazan (12:00-14:30)
 - Umeentzako mozorro-lehiaketa; Santa Eugenia plazan (13:30)
 - Txokolate-jana; Cervantes plazan (17:30)
 - Mozorro-kalejira; Cervantes plazatik (18:30)
 - Umeentzako erromeria: Trikizio; Santa Eugenia plazan (20:00)
 - Erromeria: Trikizio; Santa Eugenia plazan (22:30)
 - Mozorro lehiaketa tabernetan (gau osoan)
- **Algorta, otsailak 18, zapatua:**
 - Umeentzako tailerrak; Telletxen (12:00)
 - Euskal inauteri-kalejira; Sarrikobaso, Algortako Etorbidea, Basagoiti, Kasino, Torrene, Telletxe, Villamonte eta Kasune (12:00-15:00).
 - Mundakako Atorrak eta Lamiak; auzoan (12:30)
 - Umeen mozorro-jaitsiera; Telletxetik (17:00)
 - Txokolate-jana; Telletxen (18:00)
 - Umeentzako erromeria; Telletxen (18:30-21:30)
- **Algorta, otsailak 19, domeka:**
 - Erraldoi eta buruhandiak; Sarrikobaso, Tangora eta Telletxen (12:30-14:30)
 - Mozorro lehiaketa; herrian (12:00)
- **Algorta, otsailak 25, zapatua:**
 - Koadrilen arteko bazkaria; Telletxen (15:00)
 - Erromeria, kantu-kantari; Telletxen (16:00-18:00)
 - Mozorro-poteoa; Telletxetik Portu Zaharrea (19:00)
 - Erromeria; Telletxen (20:00-24:00)
 - Kontzertuak; Portu Zaharrea (21:00)
 - Mozorro lehiaketako sari-banaketa; Portu Zaharrea (01:00)

Azkenean lur-azpian

Metroa lur-azpian joango da Maidaganen



Metroa lurperatzeko eskatu dute auzotarrek hasieratik

Zenbat protesta eragin izan ditu metroaren aferak Andra Marin! Duela 16 urte ordezkatu zuen metroak lehengo tren eta, ordutik, lurperatzeko eskatu dute auzotarrek. Izan ere, metroa egiteko, herri eta tarte askotan lurperatu zuten bidea; ez, ordea, Maidaganen. Baina, urteak aurrera, azkenean lurperatu dute eta, hemendik aurrera, lur-azpian zirkulatu du tarte horretan.

Azken urteotan, oinezkoentzako pasarela erraldoia kokatu dute Maidaganen, lanek iraun duten bitartean. Hura ere hil honetan kenduko dute, behin metroa lurpean ibiltzen hasita. Otsailaren 20an desmontatzen hasiko dira; izan ere, orduan zabalduko dute oinezkoentzako bidea, hain zuen ere, lehen trenbide-pasagunea zegoen lekuan.

Eguno pasarela behin kenduta, 3.500 metro koadroko orubea lotuko da eremu horretan, eta bertan zer egin erabaki behar dute orain. Prozesu horretan auzokideek ere parte hartzeko eskatu dio Udalak Garraio-Partzuergoari. Ondorioz, Bidezabalen zabaldu dute herritarrak artatzeko bulegoa, euren ideiak batu asmoz; liburuxka bat ere helaraziko diete, helburu beragaz. Udalak umeentzako parkea egitea proposatu zuen, Telletxen dagoenaren antzekoa, baina Garraio-Partzuergoak oraindino ez du zehaztu proiekturik.

Zehazki, 1.200 metro trenbide lurperatuko dute trenbidea eremu horretan lurperatzeko proiektuaren baitan. Lanek 36 milioi euroko kostua izango dute, Ibarbengoako geltoki barria barne. ○

UDALAREN PARTAIDETZA PROIEKTUA

Partaidetza instituzionalaren egoeraren azterketa egiten ari da Udala. Horrela, martxan jarri du "egungo egoera zehaztu eta aurrera eraman beharrek jarduerak proposatuko dituen proiektua". Ondorioz, "partaidetzaren errealitatearen koordinazioa, garapena eta komunikazioa hobetzeko proposamenak eskainiko ditu, e-partaidetza sustatzeko bideak luzatuko ditu eta Getxoko partaidetzako eredu propioa zehaztuko du". Udalak 17.930 euro bideratu du Iritziak Batuz deritzon proiektu hau garatzeko.

SEINALE BARRIAK TURISMO GUNEETAN

Baliabide eta zerbitzu turistiko nagusien aurkitzeko seinale barriak ipini dituzte Bizkaia Zubian, Portu Zaharrea, Kirol Portuan, bidaia-itsasontzien kaian, Turismo Bulegoan, Aixerrota eta Galeako Gotorlekuaren inguruan. "Zerbitzu turistiko nagusien buruzko informazioa zabaldu, beren kokapena bultzatu eta bisitariei zein turistei bertaratzea erraztu" gura die Udalak. Zehazki, 18 seinale ipini, jarrita zeuden seinaleei lotuta 7 jarduera osagarri egin eta beste 4 seinale lekuz aldatu dituzte.

IKASTAROAK GAZTE ETA ZAINZAILLEENTZAT

Ikastaro barriak izango dira aurten Getxon. Oraingoan, gazteentzako eta zainzailleentzako tailerrak gatzokiz. Gazteriarren Udal-Zerbitzuaren ikastaroen artean, aurten defentsa ikastaro barria programatu dute; gainera, surf, sukaldaritza eta jakiak manipulatzeko ikastekoak ere egingo dituzte. Izena eman dezakezu 944 660 353 telefonoan edota gaztebulegoa@getxo.net helbidearen bitartez. Bestalde, Udalak ikastaro bi antolatuta du otsailerako, mendeko zainzailleentzako: bata, erlaxazioari buruzkoa eta, bestea, talde-laguntza psikologikoa emateko. Izena eman dezakezu Herritarrak Artatzeko Bulegoetan.

Info: www.getxo.net

naturlan

**Lorezaintza
zerbitzu orokorrak**

Tf. 656 754 243

Asociación de Amigos Algorteros
"Amumak"

Asteazken poetikoak
Itsas Fundazioa
Euskara eta Algortako izenak
Alzheimer, 3. Adina, Boluntarioak

<http://www.algorta.org>
<http://amumak.getxo.net>
e-mail: sotaventaster@gmail.com
Móvil: 656773080

**Garaizar
barrikuntzak**

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Illeta kalea 1 • ALGORTA

Unai Garate Cotano > gidoigilea eta *Aner* film laburraren egilea

“Talde handi baten militantzia izan dut, euren baliabideak ipini dituzte proiektuaren eskura”



Sopelan proiektatu zuten *Aner* urtarrilaren 28an

Aner du lehen fim laburra Unai Garate Cotanok eta urtarrilean estreinatu du. Romotarra gidoilari dabil telebistan eta antzezlanak ere idatzi ditu, baina, orain arte, ez da ausartu film bat egitera. Istorio zakarra dela aitortzen du Garatek: **Aner** umea basoan galdu eta, orduan, pertsonaia bakoitzak benetako izaera agertuko du; **norberekeria eta bakardadea gisako sentimenduak nabarmentzen dira. Taldea osatzen duten 23 lagunek ipini dituzte Garateren eskura beren denbora. Orain, jaialdietan aurkezten hasiko da filma.**

—Antza, hainbat sentimendu atera gura zenuen film honeguz, ezta?

—Atsekabea eduki genuen familian, apur bat txarto pasa genuen eta hoztasun handia igarri nuen inguruan: oso bakarti sentitu nintzen eta sentsazio horretatik dator *Aner*. Duela urte eta erdi idatzi nuen, baina atsekabea orain lau urte gertatu zen; barruan eduki dut eta, azkenean, forma eman diot. Baina ez dut nire bizitza kontatu gura, astuna litzateke eta. Istorioa ez da laburrean agertzen dena, baina implizituki sentsazio hura badago.

—Sentsazio hori izan ez bazenu, film laburra egitera animatuko zinatekeen?

—Ez dakit. Oso gustuko dut zinema, baina, orain arte, ez naiz ausartu ezer egiten, ez bainuen istorio argi bat. Hau oso argi izan dut, tripetatik urten delako.

—Nola izan da egite-prozesua?

—*Aner* labur bat baino gehiago izan da, talde-esperientziari esker. Prozesuaren alderik garrantzitsuena izan da talde-kideen arteko harremana, eta 23 lagunek osatu du; nik idatzi eta zuzendu dut, baina beste gremio guztiengana jo dut

ondoren: aktore, laguntzaile, argi-zuzendari e.a. Eta jarraian etorri dira nigaz. Sekretua izan da jende oso profesionalagaz elkartu naizela eta oso ondo bete dutela euren lana. Talentu horiek denak batu ditut eta oso harro nago. Gainera,

«Taldea-kideek behar banaute hor egongo naiz, magia sortu da-eta»

zortea izan dut, antzerki mundutik ezagutzen baintuen aktoreak. Filman parte hartzen animatu dira nire lagunak direlako; proiektuan sinetsi dute, baina, batez ere, ondo ezagutzen nautilako eta proiektua tripetatik urten zaidala ikusi dutelako. —Nondik idazteko zaletasuna?

—Telebistan nabil beharrea eta artisten lana laburbildu behar dut. Aspaldi idazten dut, orain 11 urte estreinatu nuen lehen antzezlan, eta dokumentalgintza eta zinema ikastaroak egin ditut.

—Eta zer ekarri dizu, bai gidoigile gisa, bai zeuri?

—Gidoigile eta zuzendari gisa ekarri dit sinestea zer edo zer aurrera ateratzeko gai naizela. Eta istorio zakarra da, indibidualtasuna agerraraz dezake, oso bakarrik senti gaitezkeela, baina prozesu honetan justu kontrakoa gertatu zait: 23 pertsonak babestu naute uneoro eta sinetsi dute nire proiektuan. Niretzat zoragarria izan da eta oso gustura sentitu naiz dena antolatzen eta jendea gidatzen. Talde handi baten militantzia izan dut, euren baliabide teknikoak ipini dituztelako proiektuaren eskura, baita euren denbora ere. Mundu honetan jarraitu gura dut, baina besteen proiektuetan ere, eta esan nien: hurrengo proiektua ez dut zertan nik gidatu, baina, zeozertarako behar banaute, han egongo naiz, taldean magia sortu da-eta. ○

Gorrondatxeko labarrak

Estratuak izendatu dituzte **lutetiar aroko erreferente** mundu mailan



Gorrondatxeko haitzak duela 47,8 milioi urte jalki ziren

Gorrondatxe hondartzako itsaslabarretan dauden haitzetako estratuak lutetiar geologia-aroko erreferente hautatu barri ditu Geologia-zientzietako Nazioarteko Batasunak. *Urrezko iltzea* eman diote Gorrondatxeri; hots, “*estratigrafiaren alorrean bitxiak diren eta ezaugarri bereziak dituzten lekuei ematen dieten saria*”.

Ondorioz, amaitutzat eman dute EHUren Zientzia eta Teknologia Fakultateko Ikerketa Taldearen ikerlana. Eurek proposatu zuten Gorrondatxeren hautagaitza, Lutetiar oinarritzkoaren Estratotipo izenda zezaten.

Gorrondatxeko itsaslabarretako hai-

tzak itsas-hondo sakon batean jalki ziren duela 47,8 milioi urte.

Daborduko 61 Estratotipo finkatu dituzte munduan eta, horietatik bost, Iberiar Penintsulan daude (hiru Euskal Herrian): Penichen (Portugal) Toarcian oinarriko zorua (Behe Jurasikoa, duela 183 milioi urte); Fuentesalzen (Guadalajara) Aaleniarreko oinarritzko zorua (Erdi Jurasikoa, duela 175,6 milioi urte). Euskal Herrian daude besteak: Gorrondatxekoa eta beste biak dira Zumaiakoak: Selantiarreko oinarria (duela 61,1 milioi urte), eta Thanetiarreko (duela 58,7 milioi urte). ○

ROMOKO GAZTETXEA ZUTIK, BAINA HUTSIK

Uholde Batzordeak horrela erabaki zuen urtarrilean: Gobela ibaiako lanek iraun bitartean behintzat, Itzubaltzeta Gaztetxea zutik mantenduko da, baina hutsik egon beharko du. Bien bitartean, gazteak berba egin eta akordioa egiteko denbora izango ei du Udalak. URA Uraren Euskal Agentziak proposatu zuen aukera hori Uholde Batzordean, eta EAJK eta Bilduk babestu zuten. Imanol Landa alkateak dio “*ulergarritasunaren alde*” egin dutela erabaki horregaz. Bilduk, bere aldetik, ziurtatu du Gaztetxearen eta Gazte Asanbladaren jarrera defendatuko duela. Errekagane eta Antiguo Golf inguruan egin beharreko lanak udan abiatu gura ditu URAK eta 13 milioi euro kostako da. Obra handi hori egin behar dute Gobela ibaiak gainezka egin dezan eragozteko, uholdeak gertatuko balira, orain urte batzuk gertatu antzera.

EUSKAL HERRIA EGUNA ANTOLATZEKO BILERA

Algortak hartuko du aurtengo Euskal Herria Eguna, eta daborduko prestatzen hasi behar dute. Lehen bilera egingo dute otsailaren 29an, eguaztena, 20:30ean, Aldai Patronatuan. Euskararen aldeko lagun guztiak gonbidatu dituzte. Euskal Herria Eguna irailaren 29an ospatuko da oraingoan. Iaz Ibarra (Gipuzkoa) izan zen eta, aurreko urtean, Lizarran (Nafarroa).

Info+: sareajosten.net

HERRIKO ODOL-EMAILEEI OMENALDIA, 17AN

Bihotz handi Getxoko odol-emaielen elkarteak omendu egingo ditu herriko zenbait odol-emaielen: odola 20tik gora bider eman duten emakumeak eta 25etik gora eman duten gizonak. Ekitaldia otsailaren 17an izango da, barikua, 19:00etatik aurrera, Villamonteko Kultur Etxean, Algortan. Guztira 77 getxoxtarri egingo diote gorazarre eta Ondarreta Abesbatzak kantatuko du.

Info+: bihotzhandi.getxo.net

lagusana
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Xabi Otero > argazkilaria eta diseinatzaile grafikoa

“Erakusketaren kartel asko ezagutuko du jendeak, baina ez zuen jakingo nireak direnik”

Nafarroako argazkilaria eta diseinatzaile grafikoaren ibilbidea erakutsiko dute Kultur Leioan otsailean: Xabi Oteroren argazkiak eta kartelak ikus ditzakezu martxoaren 4 arte.

—Zelan sortu da aukera zure lana Leioan erakusteko?

—Erakusketa sortu nuen Kutzaren ekimen bat dela-eta. Donostiako Boulevard aretoan egin genuen erakusketa: argazkiak eta liburuak erakutsi genituen, nire lanaren errepaso. Azaroan, berriz, Arrasatera eramán zuten eta han hainbat jendek ezagutu zuen; eurek proposatu zuten Leioara ekartzea. Aurrekoak baino zerbait txikiagoa izango da, aretoa ere txikiagoa delako: gutxi gorabehera, 70 argazki eta 30 kartel eta logotipo erakutsiko ditut. Nire lanaren zati bat besterik ez dute jasotzen, behar baino denbora gutxiago izan nuelako erakusketa prestatzeko, baina egiten dudana lanaren lagina ikus daiteke.

—Euskal Herria erakusten ei duzu.

—Lan gehiena bertan egin dut eta, hortaz, argazki gehiago ditut hemengoak. Egia esan, errazagoa da kanpoko erakus-
tea, desberdina izanik, exotikoagoa da-
eta. Baina bertakoarekin asko gozatzen



Martxoaren 4 arte ikus daitezke Oteroren argazkiak eta kartelak

dut, horregatik garrantzitsua da erakustea lana nire herrian egiten dudala. Beraz, zati handiagoa da Euskal Herriko argazkiena. Horiei dagokienez, azken liburuekin zerikusi handiagoa daukate: Euskal Herriaren esentziari buruz, Aezkoa, Gasteizko katedrala edota Gipuzkoari buruzkoekin.

—Eta zelakoak dira irudi horiek?

—Euskal Herrian gehien landu dut ondare materiala eta inmateriala. Mate-

rialak zerikusia dauka etnografiarekin eta, inmaterialak, antropologiarekin; pertsonaien argazki asko dago, hori da gehien erakartzen nauena.

—Eta kartelak?

—70 eta 80ko urteetakoak dira, pegatinak eta margoketak hasi ziren, baita kartelak ere, eta garai oso polita da. Seguruenik, kartel asko ezagutuko ditu jendeak: ez zuen jakingo nireak zirenik, baina guztion parte dira. ○

Sorgin ala troglodita?

Inauteriak **otsailaren 17an** ospatuko dira, barikuan; baina, **umeena, 21ean** izango da



Sakoneta kiroldegian umeentzako jarduerak izango dira

Euskal Herri osoan nabaritzen hasi da inauteri-usaina, eta Leioa ez da gitxiago izango! Ingurura baino goizago iritsiko dira aratusteak herrira, barikuan ospatzen baitituzte. Oraingoan, otsailaren 17an izango da egun handia. Halere, umeentzako jarduerak ere izango dira domeka 21ean, urtero legez.

Bariku arrastian hasiko dira umeentzako tailerrak eta puzgarriak Euskal Etxeen plazan, 17:00etan; Maritxu Teilagorri Txosna Batzordeak antolatu ohi ditu eta txokolate-jana ere egingo dute, 19:00etan.

Nagusien kalejira, barriz, 20:00etan hasiko da: Bulebarretik abiatuko da. Musikak eta animazioak lagunduta,

mozorro lehiaketako partaideak han izango dira. Erromeria 22:30ean hasiko da, Ikea Barri plazan, eta tartean egingo dituzte lehiaketa eta sari-banaketa.

Bestalde, esan bezala, umeek asteburu osoan gozatuko dituzte inauteriak; izan ere, domekan ere jarduerak prestatu dituzte eurentzat, Sakoneta kiroldegian. Goizeko 11:00etan zabalduko dute umeentzako parkea eta hainbat ekimen izango da: animazio-taldearen ekitaldia, inauteri torrada-banaketa, mozorro lehiaketako partaideen desfilea, lehiaketa bera zein sari-banaketa. Arrastiko 20:00ak arte ez dute itxiko parkea. Gainera, Pinuetan eta Txorierrin zapatua 18an ospatuko dituzte inauteriak. ○

TOPAKETA FEMINISTEN AURKEZPENA 16AN

Leitzan izango dira Emakume Abertzaleen V. Topaketa Feministak, martxoaren 2tik 4ra eta *Hamaika egiteko ari gara* lelopean. Horregatik, Leioako Bilgune Feministako kideek aurkezpena egingo dute otsailaren 16an, 19:30ean; lekua zehazteke dago. Euskal Herriko Bilgune Feminista orain hamar urte sortu zen, “Euskal Herri feminista lortzeko helburuagaz: emakumeon bizi baldintzak hobetu eta pertsonen arteko harreman eredu barriak sortuz”. Topaketa Feministetan parte hartu gura dutenek informazio gehiago topatuko du Bilgune Feministaren webgunean.

info+: www.bilgunefeminista.org

FUTBOLARIEK ERE “PAUSU BET AUERRERA”, PRESOEN ALDE

Martxoaren 10erako Elkartasun Eguna antolatu dute Leioan, euskal presoek eskubideen alde eta *Pausutxu bet aurrera* lelopean. Apurka-apurka, atxikimenduak batzen ari dira. Arloz arlo, eragileak hasi dira ekimenak prestatzen, eta daborduko prest dago Gaueko Futbito Txapelketa arina. Martxoaren 9an izango da, Elkartasun Egunaren bezperan, 20:00etatik gauerdira arte. Izena eman daiteke pausutxubet@gmail.com helbidera mezua igorritik. Bost laguneko taldeak izango dira eta ez ei da faltako jatekoa, edatekoa, musika eta giro aparta.

info+: pausotxubet.blogspot.com

LIBURU ELEKTRONIKOAK MAILEGUAN

Udal-liburutegian maileguan har daitezke liburu elektroniko irakurgailuak, “*irakurmena eta informazioa eskuratzeko beste sarbide bat eskaintzeko*”: bost gailu daude liburutegiko bazkideentzat eta gehienez 30 egunetarako mailegatzeko dira. Gainera, egile eskubiderik ez duten 300 idazlan baino gehiagoko bilduma daukate. erreserba egin daiteke liburutegian.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA



BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com



Aktualitatearen alde ezberdinak
konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com · 943 37 15 45

[erandio]

Imanol Perez > umeentzako masaje-hezitzailea eta garezur zein errainezur-osteopata

“Aitaren eta umearen arteko komunikazioa ezartzen dugu ukimen bidez”

Umeentzako masajea eta afektibitatea tailerra antolatu du martxorako Erandioko Berdintasunak, umetxoan aitentzako. Helburua da umearen eta aitaren arteko lotura sendotzea, ukimen bidez. Imanol Perezek gidatuko du.

—Aitentzako da tailerra, zergatik?
—Berdintasun arloak antolatzen du. Historikoki, aitok nolabaiteko gabezia izan dugu gure seme-alaben hazkuntzan. Ez du esan gura emakumeak kanpoan geratuko direnik, baina, berdintasunera bidean aldaketak egiten saiatzen garenean, biek egin behar dituzte, bai gizonek, bai emakumeek. Ekintza hau gizonei zuzenduta dago, aldaketa horretan inplikatu daitezten eta, kasu honetan, hazkuntzan.

—Masaje-tailerra izango da.
—Urtebete baino gutxiagoko umeakaz lan egingo dugu, aitaren eta umearen artean komunikazioa eratzeko; masajea komunikatzeko bide ona da lehen hiletan; izan ere, orain, komunikazioa ukimen bidez ezartzen dugu.
—Nola garatuko duzue?
—Bost saio egingo dugu, baita hitzaldi bat ere. Afektibitatea eta masajea landuko ditugu: ukimen bidez harreman afek-



Izena emateko: Berdintasunak, Astrabuduko Udaltaldeko Bulegoan eta Gazte Informazio Bulegoan

tiboa garatzen dugu. Baina oinarritzkoena da, hain zuzen, aitok nola garatzen dugun harremana umeagaz. Gainera, aurrerantzean uztartzen dugun loturan eragingo du: lotura hori desberdin garatuko dugu orain, historikoki nola egin dugun alderatuta. Aurrerago, gainera, bestelako tresnak izango ditugu, aitak harremana nola ezartzen duen, bere inplikazioaren arabera.

—Eta nola egiten da masajea umeakaz?
—Hanketatik hasten gara: urrunago

daudenez errazagoa da, ume txikiak berehala asebetetzen baitira estimulua-kaz, lehenago nekatzen dira. Apurka hurreratuko gara zonalde sentiberetara, umeak masajera egokitzen doazen heinean; mundura egokitzen doazen bezala.

—Nola hartzen dute tailerra aitek?
—Zazpi urte daroaz umetxoentzako masaje-hezitzaile moduan. Emaizta oso positiboa da, nahiz eta hasieran gehiago kostatu. Leku batzuetan, tailerra hasteko zain daude asko eta asko. ○

Hamaika mozorro

Inauteriak izango dira **otsailaren 17tik 19ra: auzoz auzo**, hamaika ekimen prestatu dute



Umeentzako jarduerak izango dira Irailaren 23a plazan, Altzagan

Bardin dio zer jantzi, kalera urten eta ondo pasatzea da helburua inauterietan, eta Erandion, horretarako aukera pila bat egongo da otsailaren 17tik 19ra: auzoz auzo, hamaika ekimen.

Altzagan umeentzako dantzaldia egingo dute azoka zaharrean, eta musika animazioa egongo da kalean, 17an, bari-kua. Biharamunean, goizean izango dira umeentzako jarduerak eta kalejira; arrastian, barriz, umeen zein nagusien mozerro lehiaketa, dantzaldia eta txokolat-jana egingo dituzte. Gainera, jaia prestatu dute Gaztetxean. Domeka eguerdian ere kale-animazioa egongo da.

Bestalde, Astrabudian ere hamaika egiteko egongo da asteburu osoan. Barikua 17an entzunaldia eskainiko dute Musika Eskolako lagunek, Kultur Etxean. Gainera, euskal-dantza erakustaldia eta erromeria egingo dute. Zapatuan, barriz, goizean umeentzako jolasak eta kale-an-tzerkia izango dira, eta arrastian, mozerro-lehiaketak, txokolate-jana eta kale-animazioa. Domeka eguerdian Erandioko Udaltaldeko Bandak joko du Trabudu plazan.

Azkenik, Erandiogoikoan zapatua 18an ospatuko dituzte aratustek: euskal-dantza erakustaldia eta erromeria antolatu dituzte. Erdu jaira! ○

EGIN TXOTX RADIO CLUB TAKOLOS TALDEKOAKAZ

Argazki-kultura urteera antolatu du Astrabuduko Radio Club Takolos elkarteak datorren otsailaren 26rako, domeka, Ezkio-Itsaso, Astigarraga eta Zarautzera; horrenbestez, argazkiak egiteagaz batera, txotx egiteko aukera ere izango da. Mezo kaleko farmaziatik abiatuko dira 09:00etan eta Alzagako kaitik 15 minutu beranduago. Goizeko 10:30ean bisita gidatua egingo dute Ezkio-Itsasoko Igarubeiti baserrian, Astigarragako Rezola sagardotegian bazkalduko dute eta, arratsalde-pasa, Zarautzera joango dira. Bazkideek 38 euro ordainduko dute eta, bazkide ez direnek, 40 euro. Izena emateko Astrabuduko Josu Murueta Plazara hurbildu behar duzu, otsailaren 13tik 17ra bitartean, 19:00etatik 20:00etara.

Info+: www.radioclubtaokolos.jimdo.com

AITEI ZUZENDUTAKO IKASTAROA

Erandioko Berdintasunak aitentzako tailerra antolatu du eta oraindino badago izena ematerik. Umearen eta aitaren arteko lotura ukimen bidez sendotzeko ikastaroa da (Imanol Perezek emango du, UK-ko zenbaki honetan ikus dezakezu egin diogun elkarrizketa). Zehazki, urtebete baino gutxiago daukaten umei masajea nola eman ikasiko dute aitek. Izena eman daiteke Berdintasuna sailean, Astrabuduko udaltaldeko Bulegoan edota Gazte Informazio Bulegoan.

Info+: 944 175 616 edota berdintasuna@erandioko-udala.net

SEXU-AHOLKULARITZA OTSAILAREN 24AN

Hilero lez, otsailean eta martxoan ere sexu-aholkularitza eskainiko dute Gazte Informazio Bulegoan, Santi Brouard plazan. Otsailaren 24an eta martxoaren 2an zein 30ean dira hurrengo hitzorduak, arrastiko 18:00etatik 20:00etara. Edozein galdera egin dezakegu ondoko helbidean: infoerandio@gmail.com.



Luberrri Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
behoko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf.: 94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberrri@euskalnet.net
www.luberrri.biz

- Soropila ezartzea
Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak
Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea



www.ukaldizkaria.biz

II. DISKO AZOKA PRESTATU DU SUSTRAI BELTZAK

Mozorroa janzteaz gain, otsailaren 18ko asteburuan bestelako ekimenak ere izango dira Sopelan. Berbarako, iaz sortu zen Sustrai Beltzak elkarteak II. Disko Azoka antolatu du. Udaletzeko plazan 11:00etatik aurrera, eta diskoak erosi edo aldatzeaz gain, musika entzuteko aukera egongo da Sound System deritzonagaz.

OTSAILAREN 23AN, KEPA ACEROREN BERBALDIA

Surf-zaletuek galdu ezinezko hitzordua izango dute otsailaren 23an Plaza Beltza Kulturgunean. 20:00etatik aurrera, algortarrak bere azken bidaiei buruz berba egingo du eta hainbat bideo jarriko ditu. Bestalde, hilaren 26an, domeka, Napoka Iria talde eibartarrak kontzertua eskainiko du Sekeko Gaztetxean.

BILGAILUEN ZERGAN %5-EKO HOBARIA

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zerga dagoeneko ordain daiteke Sopelan, eta ordainketa helbideratzen duten auzokideek %5eko hobaria jasoko dute. Ordainketa helbideratzeko epea martxoaren 13an amaituko da, eta hainbat modutan egin ahal izango da: udal webgunearen bidez, hurrengo helbideetan, billketa@sopelana.net eta errentak@sopelana.net edota Udaletxean zein Sopelarin Larrabasterrako udal bulegoan.

GAROÑA IXTEKO ESKATU DU UDAL-BILKURAK

Sopelako udal-bilkurak Garoñako zentral nuklearra ixteko eskatu zuen urtarileko ohiko udalbatzak. Bilduk egin zuen proposamena eta EAJ eta PSEren babesa jaso zuen, adostasuna lortzeko testuan hainbat aldaketa egin ostean. PPK, barriz, aurka bozkatu zuen. Udalak bere esku dituen bitartekoak jarriko ditu zentral nuklearra itxi dezaten eskatzeko.

Mozorrotu eta kalera! Batukada eta disko-festa antolatu dute hilaren 19 eta 20an, aratusteak ospatzeko



Igandean mozorro-jaiak eta desfilea izango da Urkon

Lotsak kendu eta mozorroa janzteko sasoiak duzue! Sopelan otsailaren 18 eta 19an ospatuko dituzte aratusteak, eta Kultur Etxeak egitarau potoloa prestatu du asteburu osorako.

Zapatu goizean aratusteetako eskulanak eta jolasak prestatuko dituzte Pilotalekuan. Arrastian, barriz, zirko-jaiak hartuko du lekukoa, eta 17:00etan hasita hainbat tailer antolatu dituzte: malabarismoa, hankaluzetean ibiltzen ikasteko tailerra, diabolokak eta kario-kak, saltoak, sokaren gainean ibiltzeko tailerra e.a. 20:00etan disko-festa eta

karaoke mundialaren txanda helduko da, eta eguna guztiz biribiltzeko, gaueko 21:00etan Katü Bürü batukadak kalejira egingo du Sopelako tabernetan, udaletzeko plazan hasita.

Hurrengo egunean jaiak Larrabasterran jarraituko du. Urko kiroldegian desfilea eta mozorro-jaiak egingo dute 18:00etatik aurrera. Parte hartzeko, beharrezkoa izango da alde aurretik izen-ematea, Kurtzion, eta bertan parte hartzaileei zenbaki bana emango diote (taldeka edo banaka). Epea otsailaren 17an amaituko da. Animatu! ○

Luis Tejerina eta Natxo Susaeta > 'Oficina de hechos'

"Guri gustatzen zaiguna egiten dugu; ez dugu saltzeko helburuagaz egiten"



Arriatera etorbideko 73. zenbakiko 3. sotoan dago lokala

'Zure proiektuak egiten ditugu, eta gureak ere bai'. Hori da Larrabasterran dagoen 'Oficina de hechos' lokalaren leloa. Luis Tejerina eta Natxo Susaeta bertan izaten dira asteleheneetik barikura 16:00etatik 20:00ak arte, produktu barriztaile eta sortzaileak eraikitzen.

—Denda arrunta baino askoz gehiago da 'Oficina de hechos'...

—Hondartzan jaiotako proiektua da: bertan hainbat ideia izaten genituen, buruari eragiten genion eta azkenean ideia horiek errealitate bihurtu ditugu, horregatik deitzen da horrela denda. Urte bi baino gehiago daroagu proiektu honeguz.

—Eta zer topa daiteke zuen lokalean?

—Autofinantzaketaren bidez eta birziklapena oinarri hartuta, 'produktuak' sortzen ditugu: tazak, kamisetak, koardroak, lanparak e.a. Artea deitzea agian larregi da, baina ukitu sortzailea beti jartzen diegu gauza guztiei. Denak du bere sormen puntua: dirurik ez dagoen

nez... burua baino ez daukagu! Dendak ez du diru askorik ematen, asko jota alokairua ordaintzeko ematen digu, kar-kar! Baina gauzak ez ditugu sortzen saltzeko helburuagaz, guri gustatzen zaigulako egiten dugu.

«Ukitu sortzailea ematen diegu gure produktu guztiei»

—Liburu bat ere plazaratu duzue, ezta? —Bai, eta laster bigarrena kaleratuko dugu. Willy Uribe, Josebita Kortazar eta beste lagun batzuek poesia-emanaldiak antolatu ditugu, eta beste ekimen batzuetan parte hartu: jaialdiak, merkatu txikiak e.a.

—Tazak ei dira zuen produktu arrakatsuen...

—Bai, mila taza baino gehiago saldu ditugu. Sei eurotan saltzen ditugu, eta denei ematen diegu gure puntu pertsonala. Eskaera ere onartzen ditugu! ○

Info+: oficinadehechos.blogspot.com

DIDAK hAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

OINUTSIK KONTSULTA PODOLOGIKOA Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU
ONGIZATEAREN
ZUTABE, OINEZ
EDONORA HEL
ZAITEZKE!!


Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net

Etxeart
Eraikuntza / Barrikuntzak
Zurezko Egiturak



Sagastikoetxe Industrialdea
Etxalde 2 - Pabiloi 11
48630 Gorliz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144



<http://www.etxeart.com>

JOALDUNAK IKUSGAI ARATUSTEETAN!

Simon Otxandategi dantza taldeko joaldunek zintzarriak astinduko dituzte Berangoko aratusteetan, urtero legez. Otsailaren 25 eta 26an ospatuko dira aurten, eta txiki eta ez hain txikiak hamaika jarduera izango dituzte. Zapatuan mozorro kalejira egingo dute Berangoeta Kultur Etxetik frontoiraino, Auskalo ikuskizunagaz. 18:00etan hasiko da. Behin pilotalekura helduta, D Traka taldearen eskutik Marin Eroa haur-berbena izango da, 19:00ak aldera. Ondoren, gaueko 22:00ak arte diskoteka egongo da guztientzat, eta egunari txapela jartzeko txokolate-jana egingo dute. Hurrengo egunean, barriz, Simon Otxandategi Dantza taldeko lagunak txanda helduko da. Urteroko kalejira joaldunak eta Zuberoako maskarada eskainiko dute. 11:15ean hasiko dute kalejira Lantzarten, 11:30ean helduko dira Axganera, ordu laurden beranduago Karabiganera eta amaitzeko, Sabino Arana kalera helduko dira 13:15ean. Horren ostean, gaztetxoek dantza ikuskizuna eskainiko dute frontoian.

KARTELAK KOKATZEA ARAUTUKO DU UDALAK

Urtarrileko ohiko bilkuran kartelak, pankartak eta margoketak arautuko duen ordenantza egitea adostu zuen Berangoko udal bilkurak. PPK egin zuen proposamena, eta EAJ eta PSE alderdien babesa jaso zuen. EB abstenitu egin zen eta Bilduk aurka bozkatu zuen. Hurrengo hiletan ordenantza horren edukiak zehaztuko dituzte.

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

Tf. 94 491 13 37

publiuk@aldizkaria.biz

Bielorrusiagaz elkartasuna Pijama eta pixohial bilketa hasi du Acobi elkarteak Klimovichi herrira eroateko



Adolfo Sangroniz berangoztarra dabil antolaketa lanetan

Bielorrusiako Klimovichi herriagaz elkartasun proiektua abiatu du Acobi elkarteak, Berangoko Udalaren lankidetzagaz. Iaz jostailu eta arropa bildu zuten Acoviko lagunek; eta aurten pijamak eta nagusientzako pixoihalak batu gura dituzte.

Izan ere, Acovi taldeko Adolfo Sangroniz berangoztarraren arabera, Klimovichiko ospitalean prekaritatea da nagusi. Elkartekoek egindako azken bisitan, ospitaleko gaixoen pijamarik ez zutela konturatu ziren, eta horregatik erabaki zuten kanpaina abian jartzea.

Horretarako, proiektuan parte hartu gura duenak Berangoeta Kultur Etxean pijamak edo pixoihalak uzteko aukera izango du. Dirua ematea gurago duenak ere Acoviko kontu korrantean sar dezake (web orrian ikusgai). *“Proiekturako 20.000 euro behar dugu eta oraingoz 7.000 batu ditugu”.*

Batzen duten materialagaz karabana egingo dute Bielorrusiaraino ekaina aldean. Han, batutako materiala uzteaz gain, ospitalearentzat hiru anbulantzia ere utziko dituzte. ○

Info+: acobi.kzcomunidades.net

Juan Manuel Goikoetxea > Lirain abesbatzaren lehendakaria

“Abesbatzaren ibilbidea emankorra eta polita izan da”



Gaur egun, nagusien abesbatza 34 abeslarik osatzen du.

Juan Manuel Goikoetxeak Lirain abesbatzaren ibilbidea oso hurretik bizi izan du; bera izan baita horren sortzaile, eta presidente.

—Hogei urte hauetan leku askotan abestuko zenuen. Horien guztien artean, zein bereziena?

—Bai, Euskadi osoan abestu dugu, baita Espainian ere. Europara ere jauzi egin dugu, eta Milanen, Vienan, Pragan, Parisen eta Erroman izan gara. Bidaia guztietatik bereziena, 2011ko maiatzean egin genuena izan zen. Horretan, meza abestu genuen Vatikanoko Aldare Nagusian. Oso berezia eta polita izan zen daukan historiagatik.

—Zerk bultzatu zintuen abesbatza sortzera, zer dela eta sortu zenuen?

—1991ko abenduko gau batean, senar-emazte kuadrilagaz abesteari ekin genion. Orudan konturatu ginen abesten genuena atsegina zela, eta horrek eroan ninduen

Lirain abesbatza sortzera.

—Zelakoa izan da abesbatzaren ibilbidea?

—Oro har, ibilbide ona eta emankorra izan da; aurretik esandakoagatik eta Gorliz izena lekutan eroan dugulako. Aldi berean neketsua ere bada, entseguak antolatzea, eta konstantea izatea. Gure ekimen garrantzitsuenen artean, urtero Gorliz, ekainean antolatzen dugun Habanera Jaialdia eta Euskal Polifonia da. Aurten, urteurrena dela-eta Plentziako

“Vatikanoko Aldare Nagusiko mezan abestea berezia izan zen”

abesbatza gonbidatu gura dugu.

—Zure iritziz zein da abesbatzaren etorkizuna?

—Etorrizuna ez da erraza, ez diruagatik, baizik abesbatza mantentzeko konpromisoa behar delako, eta lana da. ○



Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

OSTAIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



Torre 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

irati
OPARIAK MODA GAZTEA

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

Zure publizitatea hemen

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

Tf. 94 491 13 37

publiuk@aldizkaria.biz



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / Tf. 94 491 17 86



PLENTZIAN, HAINBAT JARDUERA ASTE SANTURAKO

Daborduko Plentziako Udalak Aste Santurako hainbat ekintza antolatu du 8-16 urteko gazteentzat. Jardueren artean, surf-ikastaroa, kayak, mountain-bike eta ibilaldiak izango dira. Izena emateko epea zabalik egongo da otsailaren 20tik martxoaren 5era. Prezioa 85 eurokoa izango da Plentzian eta Gortzen errolatutakoentzat; 125 eurokoa Mankomunitatean bizi denarentzat; eta, gainontzekoek 165 euro ordaindu beharko dute.

ETXEKO KONPONKETAK IKASTAROAN IZEN-EMATEA LUZATU DUTE

Otsailaren 24ra arte zabalduko dute etxeko konponketa txikiak egiteko ikastaroa Gortizko Kultur Etxean. Bertan, brikolaje, iturgintza, elektrizitatea eta jostintzan aritzeko aukera izango da.

IV. TOSTADA LEHIAKETA BARRIKAN

Aurten ere, Barrikako Udalak herriko zenbait jatetxeren laguntzagaz tostada lehiaketa antolatu du otsailaren 20an. Lehiakide bakoitzak ogizko dozena bat tostada aurkeztu beharko du Udaletxeko beheko solairuan arrastiko 18:00etan. Izen-ematea otsailaren 18ra arte izango da.

Mankomunitatea

Antolatutako ikastaroen ardatz nagusia lurragaz hartu-eman zuzena izatea da



Ikastaroek eredu ekologikoa sustatu gura dute

Hamaika dira Mankomunitateko Ekogune zerbitzuak martxan jarritako ikastaroak: parterre-diseinua, terrazako ortua, ortu organikoa, sukaldaritzarako usain-landareak zein ortuko monitorizazioa, besteak beste. Ikastaro horien guztien xede nagusia floraren eta faunaren arteko harremana ezagutzeko da. Horrez gain, ikastaroetan parte-hartzaileek landareen beharrak asetzen ikasiko dute, betiere, produktu kimikoak erabili barik. Era berean, Ekogunek ikastaro horien bitartez herritarrek naturara hurreratu gura dituzte, eta, naturaren beraren garrantziaz jabetuz.

Ez da lehen aldia Mankomunitateak horrelako ikastaroak martxan jartzen dituenak; izan ere, 2007an lehenengo inausketa ikastaroa eskaini zuen, herritarren eskari eta iradokizunak erantzuteko helburuagaz. Nahiz eta urtarilaren 14an urteko lehen ikastaroa

abiatu, asko dira, oraindino, egiteko daudenak; berbarako, datorren, otsailaren 13an aldaxka-tailerra izango da, eta ondoren, martxoaren 24an zuhaiskak inausketa tailerra. Ikastaroan parte-hartzaileak Mankomunitateko zazpi udalerrietako batean egon behar du errolatuta gazte, heldu zein jubilatuz izan daiteke.

Martxoaren 15era arte izena emateko aukera izango da

Sendabelar, inausketa, ortu ekologiko zein lorategi diseinatze tailerrak izan dira, beste batzuen artean, aurreko ikastaroetan arrakasta gehien lortu dutenak. Oraingoan, izen-ematea martxoaren 15era arte zabalik egongo da; hortaz, ortu lanak gogoko izanez gero, hortxe duzu aukera! o

Info+: www.uribekosta.org

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Ots. 13 - Ots. 27

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ZINEMA

GORLIZ

► **Zine-foruma: El mago de Oz.** Otsailak 15, 19:00etan. Teresianon.
► **Bideo-foruma: El dinero es deuda.** Otsailak 23, 19:00etan. Teresianon.

SOPELA

► **Zinegoak.** Otsailak 17, 19:30ean. Kurtzio Kultur Etxean. Doan.
► **Pa negro.** Otsailak 23, 17:30ean. Kurtzion. Doan.

GETXO

► **Zine-kluba: Happy thank you more please.** Otsailak 17, 21:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 2,90 euro.
► **El gato con botas.** Otsailak 18, 17:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 2,10 euro.

BERANGO

► **Horton.** Otsailak 19, 18:00etan. Berango Antzokian. Doan.

LEIOA

► **Cachitos picantes.** Otsailak 21, 20:00etan. Kultur Leioan. 2 euro.
► **Canino.** Otsailak 28, 20:00etan. Kultur Leioan. 2 euro.

ERANDIO

► **La piel que habito.** Otsailak 26, 19:30ean. Astrabuduko Kultur Etxean. 2 euro.

ERAKUSKETAK

PLENTZIA

► **Juan Jose Cuadrado.** Otsailaren 16tik aurrera. Goñi Portalen.

ERANDIO

► **Inauterietako kartelen lehiaketa.** Otsailaren 24 arte. Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean.



laz Asier Azpiroz zubietarrak irabazi zuen sariaketa

► Bertsolaritza

ABRA saria jokatu da otsailaren 24an

Bertsolari gazteek eta bertsozaleek hitzordu polita daukate hil honetan: XI. ABRA saria jokatu da otsailaren 24an, barikua. Nor baino nor arituko dira Inazio Vidal (Leioa), Txaber Ormazabal (Arrigorriaga), Endika Igartzabal (Gabiri), Maddi Ane Txoperena (Hendaia), Irati Majuelo (Iruñea) eta Xabi Igoa (Aramaio). Saioa bertso-afaria izango da, azken urteetan legez, eta Fadura garagardotegian egingo dute. Afaia 21:00etan hasiko da eta 15 euro ordaindu behar da; bertso-saioa, barriz, 22:00etatik aurrera izango da. Afaltzeko tokia alde zuretik gorde behar da; horretarako, 605 704 385 deitu edo albegetxo@gmail.com helbidera mezua igor dezakezu.

• **Non:** Fadura garagardotegian • **Noiz:** Otsailaren 24an, 21:00etan

GETXO

► **Arte Ederretako ikasleak.** Otsailaren 25 arte. Algortako Kultur Etxeko erakustaretoan.
► **Itsasoko bideak.** Martxoaren 4 arte. Algortako Torre aretoan.

LEIOA

► **Xabi Oteroren argazkiak eta kartelak.** Martxoaren 4 arte. Kultur Leioan.

ANTZERKIA

GORLIZ

► **Lur Korta ipuin kontalaria.** Otsailak 25, 18:30ean. Teresianon.

SOPELA

► **Morritson eta Gartzia.** Otsailak 25, 20:00etan. Kurtzio Kultur Etxean. 3 euro.

BERANGO

► **Eriz magoa.** Otsailak 26, 18:00etan. Berango Antzokian.

GETXO

► **Umeentzako opera: La pocion magica.** Otsailak 26, 18:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 4 euro.

MUSIKA

GETXO

► **Kuenta atras.** Otsailak 16, 20:00etan. Romoko West Side Bar tabernan. Doan.
► **Hamaiketan.** Otsailak 23, 20:00etan. Algortako The Piper's Irish Puben. Doan.

LEIOA

► **The Rockin' Johnny Band.** Otsailak 17, 22:00etan. Kultur Leioan. 6 euro.
► **Audience plays Amerikanuak.** Otsailak 24, 21:00etan. Kultur Leioan. 10 euro.
► **Kale gorrian + Amargor + Al Infierno En Goitibera.** Otsailak 25, 21:00etan. Udondo Gaztetxean.

BESTEAK

GORLIZ

► **Sagardotegira urteera.** Otsailak 25, eguerditik. Izena emateko, deitu: 668 654 770.

SOPELA

► **Kepa Aceroren hitzaldia: Azken muga proiektua.** Otsailak 23, 20:00etan. Plaza Beltza kulturgunean.

ERANDIO

► **Astrabuduko jaiak, bilera irekia.** Otsailak 23, 20:00etan. Astrabuduko Kultur Etxean.



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Erraldioen itzalpean

Gero eta gehiago dira kanabera hartuta itsasadarrean arrantza egitera animatzen direnak. Inor gutxik esango zukeen orain dela pare bat hamarkada ur lohi horietan jangarri den zerbait arrantza zitekeenik. Antza denez, garaiekin batera ura ere aldatu egin da; korronteak lohia eroan ei du. Halere, itsas-ehiztariek badaukate zikinkeria nagusi zen garaiaren lekuko ekidiezina: aurreko industriren erraldoitasun eta xarma.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Algortako tren geltokia, metroa eraiki baino lehen

Hala da. Metroa baino lehen bazegoen trena eta geltokia Algortan, gazteen begietara gezurra badirudi ere; eta duela ez asko. Telletxe kalea zeharkatzen zuen, orain metroak bezala, baina lur gainetik: orain 16 urte horrelakoa zen Algortako erdigunea. Argazki hau, ordea, oraindino aintzinakoagoa da eta ageri den trenak egurrezko jarlekuak zeuzkan. Eta nork ez du oroitzen geltoki alboko 'fotomaton' mitikoa? Garai hartan ez zegoen makinari txartelak zulatzeke. 'Pika' trenera sartu eta txartela eskatzen zuen, bidaiariak ordaindu barik joan ez zitezen: batzuk saiatzen ziren horretan eta 'txiwiski' ez zebilen bagoian sartzen ziren, hark ez harrapatzeke esperoan, eta bagoitik bagoira ere ibiltzen ziren. Haiek garaia, haiek!

[berbetan]

Kazetaritzan lizentziaduna eta Andreak aldizkariko barriemoile izandako Itziar Ziga (Errenteria, 1974) Bartzelonan bizi izan zen 2000-2009 artean, ordutik hiru lan idatzi ditu: *Devenir perra* (Melusina, 2009), *Un zulo propio* (Melusina, 2009) eta *Sexual Herria* (Txalaparta, 2011). Bizi osoan aktibista feminista, hori du atxikimen eta pasio politiko nagusi. *Facebook*-ik ez badu ere, horrek azken liburuko azala zentsuratu dio, “*egia bat azaltzen du, jasaten ez dutena: ez dudala ezkutatu gura... benetako eszena lesbikoa dela, ez gizon heteroentzako porno-lesbiko faltsua e.a. Adi egon! Saldutako krisialdi honetan kapitalismoak halakoak baliatuko dituelako barrero heterosexismoa bultzatu, andrak etxean sarrarazi, gizarte otxandu eta etxekotura itzultzeko*”.

Itziar Ziga

Argi, zuzen eta egia!

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **Argazki Press**

—*Sexual Herria*-n gaietako, asmoetako batzuk dira euskaldunak “berputifikatzea eta bersexualizatzea”. Zerk bultzatuta idatzi duzu horren gainean?

—Neure interes propioetatik, hemen zein beste edonon, neuk faltan bota ditzakedan abiatzen da behar hori; sexu-askatasunean moral katolikoak eta moral burgesak min handia egin digula uste dudalako. Bartzelonako sexu-erbestealditik itzuli nintzenean, sexu-erbestea deritzot, sexu-bizitza askotarikoaren, osoagoaren, askeagoaren eta dibertigarriagoaren bila, nire iritziz, euskaldun askok hartzen dugulako bide hori; zelanbait herriaren (inguru txikiago baten) errepresio-kontrolatik ihesi. Eremu txiki horietan, garrantzi handiegia emoten zaiolako gutaz esango dutenari, autokontrol kolektiboari. Itzultzean, Txalapartako Mikel Sotok liburua idazteko proposatu zidan, eta aholkatu ahalik eta arinen idaztea, kontrastea ez galtzeko; han bizitako sexu-esperientzia kolektibo eta pertsonal zelanbait zabalago, osoago, nabarmenagoa, ez horren jainkojalea, ez hain neurritsuaren sentsazioa gal ez nezan.

—Hemen ez dela sarri larrutan egiten topikoak zer du topikotik, zer egia?

—Ergelkeria izan liteke galdera, baina neuk oso gogoko dut kaikukerietatik edo garrantzi bakoizat jotzen diren kontuetatik abiatuta idaztea, garrantzizkotzat jotzen dena tranpa izan ohi delako, hau da, inportantetzat hartzen diren diskurtsoak beti interes hegemonikoenetatik abiatzen direlako... Neu lako emakume feminista, lesbiana, ezker-muturrekoak ez duelako horien baitan bere burua irudikatzen, ho-

edonon hemen baino larrua gehiagotan jotzen dela egia ala gezurra dela egiaztatzeko. Beraz, hori baino, gure sexualitatea zelakoa den aztertzeko gogoia izan dut, geure burua zelan dakusagun jakitea. Desioa, lizuntasuna, haragi-nahia, are gehiago maitasun-estim adierazpenak publikoki ez adieraztea eta sexu-zuhurtzia gure idiosinkrasiaren, izaeraren edo herri-nortasunaren parte direla onartzera eroan gaitu askotan eremu publikoen eta pribatuen arteko banaketa latzak. Edozelan ere,

“Ez gara beti hain sexu-zuhurrak, moja edo jainkojale izan...”

regatik dut gogoko kontu “hutsaletatik edo ergeletatik” abiatuz idaztea; eta oraingoan topiko, galdera edo dena delako horretatik tira egin dut; egia esan, azkenean, ez dut baieztapenik eskaintzen, ezta gezurtatzen ere. Gehien interesatzen zaidan ekarpenetako bat Francis Diezek (Doctor Deseo) egin zidan, hau da: inork ez du behar besteko landa-lanik egin beste

ez genuke lar interesgarria, dibertigarria edota askatzailea ez den nortasun kontu bati atxiki beharrik... Gainera, nortasuna guztiz aldatokorra, mugikorra, bernegoziagarria da, eraiki daitekeena, eta uste dut, estrategiakoa dela horren gainean berba egitea, zuretzat eta kolektiboki onuragarria delakoan egiten duzunean. Bestalde, neure zelanbaiteko “tesia”-ri ez diot ildo



arrazional, historiko, antropologiko edo soziologikotik heldu, sorginkeriaren eta xarmaren haritik baino. Tesia-edo hau da: dominazio, kolonizazio katolikoa edo horrek eragindako trauma izan da sexu mailan ezkutarazi gaituena. Hori argudiatzeko-edo, gure sorginen historia berreskuratzen du. Sorgin-ehizari sortzeko feminizazioa deritzot nik; oro har, kristandade osoan emon zena. Beste gai batzuen inguruan egin diren ikerketak baino azterketa gitxiago egin dira gai horren gainean, eta sorgin-ehizak, nire ustez, oinarriztat jo diren beste gai horiek baino pisu handiagoa eduki zuen gaur egungo mundua erakitzeke funtsak ezarri zituztenean, zentzu misogino, heterozentriko, kapitalista, dominatzaile, autoritarioaren ikuspegitik egin zutelako. Modernitatearen tranpa asko, azpikeriaz, sorgin-ehizan ezarri zituzten. Eta hori aztertzeari ez diote garrantzi nahikorik emon, oro har, emakumei eragin zielako. Kontuan hartu heldu zaizkigun lekukotza bakarrak sorginen torturazaila-hiltzaileenak direla, Inkisizioarenak; halere, testigantza horietatik antzeman dezakezu sexualitatea beste modu batera bizi zutela garai haietan, emakumezkoak bestelako botere soziala genuela, eta antisorgailu, ugalkortasun zein sexu-plazerean gure gorputzaren bestelako kontrola genuela. Oso gogoko dut etsaiaren ispiluan neure buruari begiratzea, gure etsaiek askotan buru-argitasun harrigarriagaz arbuia-tzen gaituztelako; hainbeste gorrotatzen gaituztenez eurentzat hain gaitzesgarria dena sarri guretzat baikorra izaten delako. Zentzu horretan gutaz, euskal emakumez, euskaldunetz, herri legez eskaini dituzten argazkiak oso interesgarriak dira, berbarako: Lapurdin ehunka sorgin akatu zituen Pierre Lancre inkisidoreak euskal emakumez esan zituenak txundigarriak dira, libreak ginela, sagar asko jaten genituelako denak ginela Eva, beraz sorginak! e.a.; edota bai hark eta baita Aymeric Picaud-ek ere sexu kontuetan oso askeak ginela zioten, eurek hori gutzia gaitzetsiz,

noski! Hori irakurri eta diot: aikor! Ez gara beti hain sexu-zuhurrak, moja edo jainkojale izan... Beraz, gure sorginak berreskuratzen ditut, eta eurek egiten zutena imajinatuz gero... ez zait besterik bururatzen: Zugarramurdi lako kobetan orgiak besterik ezin zitezkeen egin! Orgiak, bakanalak, gaurko “rave” delakoak. Laburbilduz, sorgintasun batetik abiatu naiz, zelaibat sorgin-politi-

“sorgin-ehizak ekarri zuen emakumeek zuten botere sozialaren galera zein herrien jatorrizkotasunaren garela”

ka batetik. Historia kontatu diguten moduan kontatu digute, tranpaz beteta, adib.: esan digute Erdi Aroan emakumeak guztiz menderaturik bizi ginela, eta gure egoera hobetzen joan dela. Askotan guztiz aurkakoa gertatu da, horra hor sorgin-ehizak ekarri zuen emakumeek zuten botere sozialaren galera zein herrien jatorrizkotasunaren garela; euskaldun emakumezko legez, gizonezko legez ere bai, eta herri moduan ere egundoko mina egin ziguten! —Beste lanen ardatza feminismoa da, edo horren kritika. Martxoko Topaketa Feministen aurretik, zelan dabil euskal feminismoa? —Feminista erradikaltzat dut neure burua. Feminismoa erradikala baino ezin liteke izan! Erradikala gaien errora doana da, orain urte asko unibertsitateko lagun anar-

“feminismoa ez da egundo mugimendu iraultzaile kolektibo baten asmo politikoen lehenengo lerroan ipini...”

ko, libertario batek esan legez. Muturrekoa eta erradikala nahasten da. Erradikala erro-ra jotzea, muinari heltzea da; erroa heltzen ez bazara ez duzu gizarte-aldaketarako, ezta beste ezertarako ere, inolako egiazko helbururik. Hedabideak erradikal berbari ezkortasun kutsua emoteaz arduratu dira, nahasmenera eroaten gaituen esanguraz

janzteaz, iraultzen eta aldaketa sozialen iparrak galaraziz edo itxuraldatuz. Ostera, zentzuzkoa dena da kontuen hondo-hondora, erroa heldu gura izatea; heltzen ez bazara ez duzu ezer ere eraldatuko. Feminismoa, gizakiak erditu duen mugimendu iraultzaile askatzaileena da. Iraultza askok porrot egin dute ez dutelako patriarkatua indargabetzea bere helburuen arteko le-

hentasunen artean ipini. Ildo marxistatik, klaseei dagokion aldaketa sozialerako borroka ildotik ezingo duzu ezer ere eraldatu, ez baduzu generoen araberrako hierarkizazioa aldatzen. Gure aurka egin dituzten propaganda txar askotariko bat (sorginak ginela lehen, feministak garela orain e.a.), edo gu lako feministoi, ez dugunok “Boterea” eskuratu-asmorik, boterea eraldatu baino, omena kentzeko asmoz egin dutena da... liberala, zuriena, heterozentratua, burgesa, zapaltzailea, guztiz PSOEn ildokoa den feminismo horretara gu asimilaz nahi izatea, hori “Espanyan”; hemen ere baditugu horrelako femista liberal goretzi batzuk. Etsaiagaz guztiz bat datozen horiek emakumezkoa aipatu modura ulertzen dute, eta horietatik kanpo gauden emakumezkoengan

zuetan indartsuago, momentu aspergarriagoak ere izan dira, beharrezkoak halere... Orain goranzkoan gaudela uste dut, martxoko Topaketak aparteak izango direla, benetan interesgarriak! Gazte askogaz topo egin dudalako eta indartsu datoz, ideiak oso argi dituzte! Aipatutako konjuru, sorgintasun, sorgin-politikara itzuliz, uste dut horixe dela eraldatzeko behar duguna.

“...bakoitzak bere barneko sorgina berreskuratzea espero dut; eta agertzeko beldurra galtzea”

—Ezker muturrekotzat duzu zure burua. Zer iruditzen zaizu, zelan dabil ezkerreko feminismo aldarrikapenei dagokienez? —Uff! A ze galdera! Kontu asko bururatzten zaizkit... baina, askotan, kontu askoren gainean epaia ematen dudala uste dut, eta gerora konturatu ez dela bidezkoa izan. Azken boladan buruan dabilkidan kontuetako bat, eta *Sexual Herria* idaztean konturatu naizena, euskalduntasunetik idatzi dudana lehenengo liburua izan delako (lehen feminista, edo lesbiana, edo ezker muturreko edo antikapitalistaren gunetik idatzi dut), eta independentista baten lekutik ere bai, hau da: Latinoamerikako jatorriz-

ko herrien borroketan neure burua islatu-rik ikusten dudanean, zera sentitzen dut, hemen ere izan dugula zerbait, arazotzat edo segadatzat har daitekeena, aberasgarria datekeena, ala kaka itzela ere! Kontua da, feminista eta emakume legez, oso separatista naizela sarri, ulertzen dut gizonezkoak batu gura ez izatea, ez diot danakaz, andrazko misoginoak badirela dakidan

legez, badakit bizitzako lagun diren gizonezkoak badirela. Baina, izan ditugun auska danengatik, horietan jasandako desengainengatik, kideko borroketan alkatu garenean emakumezkoak azken lerroan utzi gaituzten une danengatik, edo kuota kontua bermatzeko bakarrik argazkirako ipini gaituzten uneengatik eta abarregatik gure aldetik joatea erabaki dugu; eta ulertzen dut. Zinez, patriarkatuagaz, sexismoagaz eta indarkeria matxistagaz amaitzea edo feminismoa ez dira egundo ere mugimendu iraultzaile kolektibo baten helburu politikoen lehenengo lerroetan ipini. Beraz, ez da harrizkoa milioi bat bide-

rez erabaki izana hobe dela gure aldetik joatea, bestela ez duzulako eurrera egingo, kitto! Ostera, dominazio egoera bati, kasurako espainiarra eta katolikoa den kolonizazio bati dagokion gatazka edo erresistentzia dagoenean, ez duzu beste erremediorik, aipatu jatorrizko herrietako emakumezkoak (eurei modu basatiagoan) gertatzen zaien legez, ez bada zure herriko gizonezkoak alkar ulertu. Beste nonbaitekoak banintz, agian ez nuke horrela ikusiko, baina gehien bat liburu hau idaztean konturatu naiz, askotan ez dugula beste erremediorik izan helburu komunengatik alkarren alboan borrokatzea baino, dominazio egoera latz batek eragiten zaituenean batez ere. Beraz, alkar ulertzea behar-urik egote hori batzuetan kaka itzela da, beste batzuetan aukera bat, beste askotan ondo egon daiteke, erremediorik ez dagoenez horretarako moduak aurkitzera behartzen gaituelako... Behingoz ulertuko balute, hainbat eta hainbat gizonek, esaterako, sindikalismotik borrokatzen dutenek-eta, azken 50 urteotan feminismoak idatzitakotik irakurriz, patriarkaturen aurkako borroka barik ezinezkoa dela kapitalismoari aurre egitea, borroka horiek alkarren beharra dutela... Baina, gorririk txarrena, entzun gura ez duena! ○

Zu deskribatzen ahalegintzeko...

—...entzuten direnak ez dira “arruntak”; feminista erradikala, puta, ezker muturreko... geuk gogoko dugu: “Probokatzaila, intentzioz probokatzeko duena”. Nor zein asmoz probokatu? —Horiez gainera, lesbiana, eta mozkorra, droga-zalea e.a. Askotan galdetu didate antzekoa, modu lotsagabeagoan, zuk polito egin duzu. Halere, probokatzeko beharrezkoak duzula aurpegiratzen dizutela ematen du. Neuk ez dut erabaki inor probokatzeko; mundua dagoen moduan eraikita egonda eta ni neu naizen modukoa izanik, molestatu egiten dut, probokatu, eta bere burua defendatzen dute nire gainean mila “eskarlata letra” idatziz.

Gustatuko litzaidakeena da, nire ausardia konturatu eta, haiek ere beldurra galtzea! Berez oso esplizitua naiz. Hala pentsatzen dut: marjinaturik zaudenean marjinaturik zaude! Disimulatu gura banu ere, ezingo nuke, egundo ere ez ninduten hartuko egokitzat, zuzentzat e.a. Askori gertatzen zaigu. Euren balio-ereduen arabera geuk gaitzeko aukera guztiak ditugu... Baina, idazten dudana leku horretatik dudana asmoetako bat izan daiteke irakurtzen nauen horrek horri beldurra galtzea, den modukoa agertzeko eta bere burua hala onartzeko, eta hala agertzeko beldurra galtzea. Eta ez da harrokeriaz esango dudana kontua, baina hilabete bi

eskas daroa azken liburua honek kalean, eta salmenta nahiko ondo doa. Euskal gatazka politikoen testuinguru barri hau, uste dut, mesedegarria izan dela... Idazten hasi nintzenean ez nuelako uste bizi dugun momentu honetan egongo ginenik, denbora luzean izan dugun momenturik onena da, nire ustes, aukerei dagokienez; eta zalantza barik borrokatzen jarraitu behar dugu. Hala, liburua irakurtzean bakoitzak bere barneko sorgina berreskuratzea espero dut, hori batez ere; gutaz diotenak gutxiago ardura gaitzala! Zure bizitza esango dutenaren arabera betetzen ahalegintzen bazara, ez duzulako zeure bizitza biziko!




Hamaika errealitate

Sergio Gardokik aurrekoan Txina aldetik ateratako argazkiak dira honakoak. Gardokik bertakoen aurpegiak ateratzearekin batera, beraien errealitatea isladatu gura izan du; bertakoen keinuak eta eguneroko hainbat egoera Txinako errealitatearen salatari bilakatu ditu. Klik bat egin eta bertako errealitatea etxe atarira ekarri digu; hala, agureak, emakume, haur eta tradizioekin gozatzeko beta daukagu oingoan. Oro har, herrialde handi baten errealitatearen lagin txikia baino ez da honakoa.

Argazkiak: **Sergio Gardoki**







Abran dragatzea

Superporturako eta Getxoko kairako: zenbat hondar, hainbeste eztabaida

Abran hondarra erauzteko proiektua dauka Bilboko Portuko Agintaritzak, baina bazterrak nahastu ditu: hainbat eragile ez dator bat asmo horregaz. Getxoko Udalak, bere aldetik, ikerketa sakonagoa eskatu du.

Bilboko superportua handitu eta Getxon bidaiari-ontzietarako kai barria eraikitzeke betegarri gisa erabili gura dute Abrako hondarra. Horregatik, dragatze-lanak egin gura ditu Bilboko Portuko Agintaritzak. Baina herritar guztiak ez daude ados egitasmo horregaz, eta eztabaida dago.

Poriektuaren arabera, 27 milioi tona hondar aterako dute, baina, Ingurumenaren gaineko eraginaren ikerketaren

arabera, 49 milioi metro kubiko erauziko lukete, hiru epetan: aurten hasi eta 2026ra bitartean. Horretatik, 250.000 metro kubiko lirakeke Getxoko kairako. Azti-Tecnalia enpresak egin du txostena.

Bilboko Portuko Agintaritzagaz elkarriketa eskatu du UK-k, baina ez diote eman, “agenda arrazoiak direla eta”. Halere, zenbait adierazpen egin du. Dioenez, ikerketak ondorioztatzen du dragatzeak “eragin txikia izango lukeela olatuetan”. Baina, haren arabera, ikerketak zenbait zehaztapen egiten du: Barinatxe, Atxabiribil eta Gorrondatxe hondartzetan “ez du eraginik izango, dragatzearen eragin-eremutik kanpo daudelako”; Ereaga eta Arrigunagan, barriz, “olatuen ekintzatik erdi-babestuta daude; horregatik, ez du eraginik izango euren egonkortasunean eta, beraz, ez da areagotuko sedimentuen garraioaren gaitasuna”.

Arrazoiak arrazoi, Getxoko Udalak ikerketa sakonagoa eskatu dio Portuko Agintaritzari, baita beste hainbat gauza ere:

49 milioi metro kubiko hondar aterakodute proiektua egikaritzuz gero

Agintaritzak egingo dituen kontrolen barri izatea; hondartzen karakterizazioari buruzko azterketaren gorabeherak alde aurretik ezagutzea; eta komunikaziorako bideak ezartzea, kontsultak egin ahal izateko.

Portuko Agintaritzak, bere aldetik, ez du uste zilegi Getxoko Udalak ikerketa sakonagoa eskatzea. Eta hori zergatik? Ingurumenaren gaineko eraginaren ikerketaren ondorioez gainera, beste arrazoi birengatik. Haren ustez, batetik, “ez dauka



Luzero muturretik hurbil egin gura dituzte dragatze-lanak, Abra II izeneko hondoan

oinarri teknikorik ikerketa osagarriak eskatzea itsasertzen dinamikari buruz, sedimentuen garraioaren gaitasuna ez delako areagotuko”.

Bestetik, Hondarra Erauzteko Proiektuaren Txostenari dagokionez, Portuko Agintaritzak dio azaroan amaitu zela informazio publikoaren eta Administrazio-

en txostenen fasea, “eta Udalak ez du txostena osatu epe barruan”. Gaineratu duenez, une honetan, Ingurumenaren Gaineko Eraginaren Aitortzaren zain dago proiektua.

Baina, arestian esan bezala, bazterrak nahastu ditu proiektuak eta, daborduko, herritarrak mobilizatzen hasi dira. Berba-

rako, Abra Bizirik Getxoko Plataforma sortu dute, besteak beste, Itxasoruntz ekimena, LZP-ren kontrako Asanblada, EHSE, Getxo Surf, Getxo Bizia, Bildu eta Portu Zaharreko arrantzaleek, “itsasari egingo zaion erasoaz informazioa batu eta zabaltzeko”.

Plataformaren arabera, Azti-Tecnalia enpresaren txostenak dio dragatzearen ondorioz “eragin kaltegarriak, berehalakoak, atzeraezinak eta iraunkorrak gertatuko direla korronteeetan, olatuen altueran, hon-

Getxoko Udalak ikerketa eskatu du eta lanak “hurretik zainduko” ditu

dartzetan, itsas-azpiko izadi zein landaredian, eta arrantzan”. Urtarrilaren 28an elkarretaratzea eta argakia egin zuten Algortako Portu Zaharrean, dragatzearen aurkako kanpainari hasiera emateko. UK aldizkariak plataformaren iritzia jaso gura izan du, baita ere; jarraian daukazu elkarriketa.

Ematen duenez, ikerketak nahiko aurreratuta daude, baina azkenean, zer gertatuko ote da? ○

Gabi Leon > Abra Bizirik Getxoko Plataformako kidea

“Zenbakiak besterik ez daukate buruan: zenbat kostako zaigu hondarra? Hori guztiona da, ez Portuko Agintaritzarena”

—Zergatik osatu duzue plataforma?

—Basakeria hutsa delako erakundeak egiten ari direna. Ez dute kontuan hartzen, ez gure natura, ez gure ekosistema; zenbakiak besterik ez daukate buruan, zer ekar dezakeen aintzat hartu barik.

—Eta zer ekar dezake?

—Adibidez, inguruko arrantza gehienak Abra ingurura datoz: arrantza egiteko gune ona da, baina suntsitzen ari dira. Orain zulo erraldoia egin gura dute

areatan eta eragina izango du korronteean eta olatuetan, hondarra desagerraraziko dute eta ez da bersortuko, urte asko eta asko behar duelako sortzeko. Gainera, lurperatutako zakar asko mugituko dute: material toxiko asko dago eta arriskutsua da. Bestalde, dragatzeak egiten hasiz gero, arrainek alde egingo dute. Enplegua sortzeko dinamiketaz aritu ohi dira horrelakoetan, baina, gura nuke jakin sortuko litzatekeen enple-

guaren benetako zifrak. Eta, gainera, galdera da: zenbat kostako zaio pertsona bakoitzari hondarra? Hondarra guztion ondarea da, ez Portuko Agintaritzarena, baina salduko du: zenbat diru kostatzen da hondar hori eta zenbat ordainduko du Getxok kaiaren eraikuntzan erabiltzeko? Zenbat superportuko betegarriko? Izan ere, proiektuak 27 milioi metro kubiko ateratzea aurreikusten badu, zer egingo dute gainontzeko 22 milioiakaz,

zertarako erabili gura dituzte? Deustuko erriberako betegarri gisa? Hori dena ez dute azaldu. Gainera, Agintaritzak portu barruan dauka eskumena eta, barriz, hondarra atera gura duten lekua Kostaren menpe dago: Agintaritzari uraren erabile-ra besterik ez zion utzi, baina ez hondoa eta fauna. Gura dutena egiten dute eta lan publikotik etekina ateratzen dute. Eta Getxok, zer turismo mota gura du? Itsasontzi erraldoia ekarri, era berean natura-baliabideak suntsitzen dituztenak? Getxo egundokoa dela saltzen dugu, baina kaka hutsa da: ez dira zaintzen hondartzak. Bisitariak etorri eta alde egitea gura dugu ala herritarrak gustura egon daitezten? Itsasertza zaindu behar dugu. ○





BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Zinegoak eskualdean

Gay-lesbo-trans edukiko guztira zortzi lan ikusteko aukera **otsailaren 14tik 17ra**



Info+: www.zinegoak.com

Bilboko gay-lesbo-trans 9. nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen jaialdiak aurtengo prestatu duen egitarau zabalagaz gozatzeko aukera egon zen joan den astean Bizkaiko hiriburuan. Edizio honetan, aurrekontuaren murritzetari aurre egin behar izan dio jaialdiaren zuzendaritza barriak, eta besteak beste aurreko urtetan baino egun bi gutxiago iraun du jaialdiak. Ostera, edukiz eta ekitaldiz betetako egitaraua eskaini du. Horietara hurreratzeko aukerarik izan ez duenak, barriz, oraindino ez ditu aukera guztiak galdu. Izan ere, ohi dan legez, jaialdiak Zinegoak Hedapena ekimena antolatuko du-eta. Horren bitar-

tez, jaialdiak Bilboko hainbat aretotan eskaini dituen zenbait lan beste herri batzuetan ere eskaintzeko aukera zabaldu du. Hala, Uribe Kostan hiru dira egunotan Zinegoak-eko hainbat film pantailaratuko dituzten aretoak: Algortako Villamonteko kultur etxea, Leioako Kultur Leioa eta Sopelako Kurtzio kultur etxea.

«Algortan, Leioan eta Sopelan ikusi ahalko dira zenbait lan»

Alde batetik, Getxorako eskaintza (hilak 14, martitzena, 20:00etan) *A los que gritan* film labur lesbikoa eta *FJELLT (The Mountain)* lan luzeak osatzen dute. Bestetik, Leioan, egun bitan egongo dira emanaldiak; lehenengoan, *Ausente* gay edukiko film luzea eskainiko dute (hilak 15, eguaztena, 20:00etan), eta bigarrenetan, *And I am me* eta *Vera y Lara (y visas)* dokumental laburrak eta *Il lupo in calzoncini corti* dokumental luze gay-lesboa (hilak 16, eguena, 20:00etan). Amaitzeko, Sopelan *Eunão quero voltar sozinho* eta *Down Here* film laburrak, hurrenez hurren eduki gay eta lesbikoa, eta *Il lupo in calzoncini corti* dokumentala ikusteko aukera egongo da (hilak 17, barikua, 19:30ean). ◯

Dokumental-musika

Hilaren 24an **Audience plays Amerikanuak** emanaldia Leioan



Gernikako Audience taldea

Amerikanuak dokumentalerako soinu banda sortu zuten Audience taldea osatzen duten Gaizka Insunzak (pianoa eta gitarra), Hannot Mintegiak (gitarra, banjoa, programazioak), Ager Insunzak (pedal steel, steel gitarra, dobroa, biolina) Andoni Lauzirikak (kontrabaxua) eta Mikel Sagarnak (bateria). Nacho Reig-ek eta Gorka Bilbaok zuzendutako dokumental lanak "Euskal Herriatik Elkonera (Nevada, AEB) joan zirenen egunerokotasuna", bizipenak eta ametsak jasotzen ditu; esan horiei egokitutako doinuak sortu zituen Gernikako boskoteak, eta

orain horiek dira zuzeneko emanaldietan eskaintzen dituztenak. "Musika amerikarraren erroek eta aukera berrien bila joandakoen istorioek bat egiten dute", azaldu dute ekimenaren sustatzaileek. Hala, blues, rock, country eta folk doinuetan oinarritutako 19 kantak osatzen du Audience-en emanaldia.

Horrenbestez, horregaz eta eurekaz gozamina hartu gura duenak hitzordua ipin dezake hilaren 24rako, gaueko 21:00etan Kultur Leioako Auditorium-en. Sarrerak 10 euro balio du. ◯

Info+: www.weareaudience.com

kalera rock > Durango, hilak 25

Otsailaren 25erako Durangoko Landako gunean antolatu duten lehenengo Kalera Rock elkartean ekitaldiak goizean zabalduko ditu ateak; puzgarri, elektrotxaranga, graffiti, animazio-ikuskizun, bertso-saio, herri-bazkari eta abarren ostean, kontzertuak 17:00etan hasiko dira. Eszenatoki bi ipini dituzte eta horietan jardungo duten taldeak besteak beste, hauek dira: Betagarri, Deskontrol, Habeas Corpus, Vomito, Bizardunak, Ze Esatek! eta Obrint Pas. Landako alboko karpas DJ Bull-en doinuakaz gozatu ahalko da 19:00etatik aurrera. Eguna amaitzeko, Plateruena kafe antzokian Trikizio taldearen erromeriaren kontzertua egongo da. Sarrerak webgunean edota Sopelan (Herriko taberna), Berangon (Neba-arrebak), Algortan (Barrutik), Romon (Herriko taberna) eta Leioan (Herriko taberna) aurrez eros daitezke (13 euro).

Info+: www.kalerarock.org

Getxo zuzenean > hileko azkenak

Otsailerako antolatutako *Getxo Live!! Getxo Zuzenean* barruko kontzertu egitarauak aurrera darrai. Getxoko Udalak "bertako musika-taldee laguntzeko sustatzen duen" ekimeneko emanaldi bigaz gozatzeko aukera duzu oraindino hil honetan; hala, hilaren 16an Kuenta Atras taldeak zuzeneko eskainiko du Romoko West Side Bar tabernan, eta hilaren 23an Hamaiketan taldeak joko du Algortako The Piper's Irish Pub-en. Bata zein bestea 20:00etan hasiko dira eta sarrera doan da.

diskoak

Captured Live in Leioa
Travellin' Brothers Big...
Gaztelupeko Hotsak



Bizkaiko blues talde betaranoaren azkeneko erronka da *Captured Live in Leioa*. Beste hamar musikarigaz batera big band-a osatu eta Leioan emandako zuzeneko emanaldia jasotzen duen CD eta DVDa grabatu dute. Diskoa 14 kantuk osatzen du, bertsoiek eta taldeak sortutakoek; DVDan zuzenekoaz gainera taldeari buruzko dokumentalak.

Basque of Brixton
Itziarren Semeak
Autekolitzpena



Bizkaiko ska punk taldearen lau abestiko EP barraren izenburuak The Clash taldearen *Guns of Brixton* doinu ezagunari egiten dio erreferentzia. Iaz kaleratutako *Lehen lerroan* diskoaren jarraipena da lan hau, eta bertan hainbat musikarikantariaren kolaborazioa izan dute: Ainhoa Mendibil, Eneko Ostolaza, Evaristo, Pirritx eta Porrotx e.a.

Krem de la krem
Txapelpunk
Autoekolitzpena



Eskorbuto, Kortatu, M.C.D., Cicatriz, Zer Bizio?, Delirium Tremens, La Orquesta Mondragon edo Ume gaiztuak 80ko talde mitikoen bertsoiek osatzen dute Txapelpunk taldearen disko barria. Etsaiak taldeko hiru partaide ohi alkatu dira lana plazaratzeko: Inigito ahotsa eta taldeko arima, Atrofi (baxua) eta Toki (bateria), Nani gitarra-jotzaileagaz batera.

EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

etorri eta ikusi!!

MORIXA

liburudenda

Alargorta 8 (Euskal Herria kalegoz bat)
Tf. 94 491 68 05
Algorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]


Gutun-bilduma, sasoikoa

Josu Martinezen eta Alfonso Etxegarai plentziarraren arteko **Hitzezko txalupak**

Orain urte eta erdi inguru aurkeztutako *Sagarren denbora* dokumentalak hurrengo historia aurkeztu zigun: "Kristiane Etxaluz xiberotarra eta Alfonso Etxegarai bizkaitarra ezohiko bikotea dira. Biak gaztetik lotuak Euskal Herriaren askapenerako borrokan, beren maitasuna sorterritik 7.000 km.-tara bizitzera kondenatuta daude. Alfonso Afrikako irla ttiki batean baitaukate aspaldi, deportaturik. Baina erbesteak erbeste, Bidasoaren Herrian dauzkate biek begiak eta sagarren denboran bihotzak. Oraindik iristear den sagarren denbora emankorren". Josu Martinezek eta Txaber Larreategik zuzendu zuten lana, Hibaï Castro arduratu zen irudiez, Txema Uriarte eta Haizea Belza ekoizpenaz eta Arkaitz Miner, Ruper

«Plentziarraren eta santutxuarren ilusioak, minak, herriaren egoera...»


Ordorika, Maddi Oihenart eta Eñaut Etxamendi musikaz. Ekimenak eraginda bide eta harreman barriak zabaldu dira. "Afrikako Osabari" idatzitako gutunak irratan irakurtzen hasi zen filmako zuzendarietako bat den Josu Martinez, "aktualitate-berriak eta nire gogoetak kontatuz... eta bere inizatibaz, Afrikako



Alfonso Etxegarai (Argazkia Elkarretik hartua)


osaba gutun haiek erantzuten hasi zen". Hala, bide emankorretik, horiek danak liburura batu dituzte. Filmako protagonistetako bat den Alfonso Etxegarai plentziarrak, "Afrikako osabak" eta Martinezek mantendutako gutun bidezko harremana jasotzen du *Hitzezko txalupak*, *Euskal Herria-Sao Tome gutunak*, 2010-2011 (Elkar) lanak. Bakoitzaren egunerokotasuna, ilusioak, minak, herriaren egoera, zalantzak, gertakari esanguratsuak e.a. Batak euskaraz igortzen ditu eskutitzak, besteak gaztekeraz, ulertu arren idazteko erraztasunik ez ei duelako. Kristiane Etxaluzek idatzi du liburuaren hitzaurrea. ○

liburuak



Breve historia del anar...
Juanxo Estebaranz
Txertoa

Breve historia del anarquismo vasco. Desde sus orígenes al siglo XXI lanean gertakariak, eztabaidak, nazionalismo-anarkismoaren harremana, emakumeen ekarpena, euskal anarkista ezagunen (Xaho, Marc Legasse, Likiniano, Casilda Hernaez e.a.) ibilbideak jasotzen dira.



Dorian Grayren egiazko...
Aitor Arana
Txalaparta

O. Wilderen nobela ezagunaren oinarri ei dira: betiko gaztetasunaren gogoeta, dandismoaren misterioa eta armairuan idatzitako nobela gaya. Aranak Wilderen lana idazlea libre izan balitz zelan idatziko zukeen ideiaz jolastu, eta sortu du *Dorian Grayren egiazko erretratua*.

[kirola]

Skate-agaz eta estalpean

Skate ekitaldiak izarpean ikustera ohituta gaude; halere, era barria datorkigu: **indoor**



Getxo Skate Klubak utzitako argazkia

lazko urrian sortu zen Getxo Skate Kluba, eta daborduko hainbat ekitaldi antolatzeari ekin dio. Horren adierazgarri da otsailaren 18an Andra Mari kiroldegian antolatuko duten Indoor txapelketa. Lehiaketaren bidez, klubak gazteen artean skate-zalatasuna sustatzeaz gain, bere burua ezagutzera ere eman gura du. Txapelketan bost urtetik gorako umeek parte hartu ahal izango dute, baita gazteek zein helduek ere. Parte-hartzaile gehienak amateur izango diren arren, adituentzako lekua ere izango da bertan. Getxo Skate Klubeko kide den Borja Casasek adierazi digunez, hemendik aurrera txapelketa urtero egiteko asmoa dute: "Lehena den arren, urtero egin, eta hobetzeko helburua daukagu".

Antolatzailearen aburuz, "skate gero eta jarraitzaile gehiago lortzen ari da gurean", eta Indoor txapelketak horren eredu izatea gura du. Horrela, skate-zale zein kuriosoek otsailaren 18an arrastian ikusizunagaz gozatu ahalko dute, betiere,

bostetatik zortziak arte. Klubak 100 partehartzaile izatea espero du; horien artean, bertokoak zein Uribe Kostako beste herrietakoak, oro har, Bizkaia osoko jendea heltzea espero dute.

Nahiz eta eskate-zale eta jarraitzaileek skatean aritzeko indoor bat eraikitzea gura duten, eurek sortutakoagaz moldatzen

"Txapelketa urtero egiteko asmoa daukagu"

dira "Oraingoz, Getxoko kiroldegian entrenatzen dugu, guk geuk sortutako arrapalakaz. Espero dugu Udala kirol honen zaletasunaz jabetzea, eta egokitutako instalazioak eskaintzea" nabarmendu du Casasek. Hemendik aurrera ere, skate-zaleek hainbat hitzordu izango dutela iragarri du klubaren kideak; San Isidro jaietan, ekitaldia; urteroko Arrigunagako txapelketa; eta azkenik, Pool ekitaldia. Hortaz, urte osoan kirol hau hurretik ezagutzeko beta ezin hobe izango da. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

KANTXA KIROL MODA



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

Nuria Alzugarai > Euskal Memoria Fundazioa

“Inportantea da sarea sortzea, Euskal Herriaren memoria historikoa osatzeko”

Euskal Memoria Fundazioa 2009an sortu zen, “Euskal Herriaren memoria berreskuratzeko eta zabaltzeko” helburuagaz. Otsailaren 2an hitzaldia eskaini zuten Leioan.

—Jendearen begietara, agian, oraindino ez da oso ezaguna Euskal Memoria.

—Helburu nagusi batekin sortu zen: Euskal Herriaren memoria kolektiboa berreskuratu eta zabaltzea. Ez dago egia bakarra Euskal Herrian, baina Estatuek herri hau ukatzen dutela, egia bat isilarazi nahi da: hori berreskuratu nahi dugu.

—1936tik honakoan zentratu zarete.

—Azken mendeko memoria bizia berreskuratu nahi dugu. Garrantzitsua da lekukotzak biltzea, eta horrek, garaia mugatzen du. Herri honentzako mugarrak bat da 36ko altxamendu faxista, eta hortik gaur arte luzatzen dugu garaia. Gaurkotasan osoa dauka memoriaren lanketak, Euskal Herriaren gatazka konpondu gabe dagoelako; aitortza eta errespetuaren bidetik etorriko delako gure historia kontatu ahal izatea lehen pertsonan.

—Zein baliabide daukazue?

—Helburu potolo horren azpian bi konpromiso finkatu genuen: bata maila dibulгатiboan, memoria zabaltzea; bestea maila dokumentalean, historia hori berreskuratzeko. Lehenengoari dagokionez, malgua da moldea. Konpromisioa daukagu babesleekin urtero lan monografiko bat egiteko, eta gabezia handiena dagoen eremuak jorratzen ditugu. Kaleratu dugu *Gernikako seme-alabak*, azken 50 urteotako errepresioaren eta gatazkaren ondorioen bilduma; eta Frankismoaren garaiari buruzko lana. Hirugarrena prestatzen ari gara, Euskal



Informazio gehiago eta harpidetza egiteko: www.euskalmemoria.com

Herrian torturak izan duen eraginaren ondorioak aztertzeke. Gainera, aldizkaria daukagu eta hitzaldiak ematen ditugu; hori zabalpenari dagokionez. Baina, horretaz gain, dokumentazioaren atalari txapela ipini nahi dion proiektua daukagu: Euskal Herriko memoria historikoa-ren dokumentazio zentroa sortzea. Hori

“Gatazka konpondu gabe dago: aitortza eta errespetuaren bidetik etorriko da gure historia kontatu ahal izatea lehen pertsonan”

da eskuartean daukagun egitasmo nagusia eta oraindik definitzen ari gara. Memoria bizi horrekin eta dokumentuekin aipatu garai historikoa dokumentatu nahi dugu. Herri honen ukazioa da historia josten duen haria. Bestalde, aipatzea nola ulertzen dugun memoria hori. Gure historia berridazteko eginkizun

handia izango dute historialariek baina, memoriari dagokionez, inportantea da lehenestea ariketa kolektiboa, eta auzolanean osatzea. Horregatik, garrantzitsua izango da sare bat eratzea, herriz herri, Euskal Herriko memoria historikoa-ren mosaikoa osatzen joateko.

—Eta zelako babes behar duzue lan

hori dena aurrera ateratzeko?

—Edozein proiektu bideratzeko babes ekonomikoa behar da: helburua da 6.000 babesle lortzea. Baina ez da harpidetza soil, hartu-eman sakonagoa da: proiektuarekiko kontzientzia maila izatea da kontua, etorkizunerako elkarlana jorratzeko helburuarekin. ○

Fredi Paia

Prudentzio Abarrategi *Mantxu*

Arteko asten bertso-papel betzuk oki zenduezan leiduteko. Askok esango zenuen: *honeri morroiri ze pasten dako? Zetara datoz Azpeitiko axkora posture baten bertsoak, kipuzkera hutsen ganera, gure eskualdeko jenerok kontaten direzen atalen?* Ulertzen dot itzeltasune, baie, tomate koisteko lez, itxedoten jakin ber da betzuten gure dun lekure ailegateko.

Lehenengo aleko bertsoak gure eskualdeko bertsolari betek idetzi iauzen, Prudentzio Abarrategi Mantxuk, hatan bere.

Prudentzio Abarrategi 1873ko apirilaren 23n jaio zan Urdulizen. Jatorriz Unbeko bizkerretara bizten etortako pastore kiputzen seme ixen zan. Abarrategitarak Unbe ingeruten topa eudezan artegintzeko bedar-leku eta barrutik. Berango, Erandio eta Urdulizeti zabaldu zien eta Prudentzio Mantxuz ganera han lobe Patxo bere bertsolari ixen zan. Prudentzio Gazte sasoin harrigunagatan, kantaratan ibil zen beharren, barrenadore edo harri-zulotzaile. Halau beten desgrazi pasa dakon eta dinamite kartutxok errementa ta esku biek eron iotsezan.

Orduti eurrera bizimodu beste era beten atara ber ixen iaun Prudentziok. Boz edarra eukan, fameliti etorkon bertsozaletasune eta sasoi hatan, plaza nahi feriten bertsoak saltzen para ezkeron beti agertzen zan erosko iaun batan bat.

Prudentzio bera bertsolari zen, ona ganera. 1935en Bertso Gudua uzeneko Euskal Herri duztiko lelango bertsolari txapelkete in euden. Bizkaiti bertsolari bi bai-zen ez zien jon, Bermioko Uriarte eta gure Abarrategi Mantxu. Orduko bertsolari onenakaz batera urtetan dau egun hatako erretratun. Manuel Olaizola Uztapide bertsolari handik eta Auspoa liburu koleziño itzela dirijidu iaun Antonio Zabala entzutetsuk estimu handi ekotseen. Uztapidek berak esandako da bere bizitze duz-



Prudentzio Abarrategi

tin ezetu iaun bertso-papel saltzailerik garrantzitsune ixen zala Abarrategi. Zabalak, osten, omenaldi in osten Tolosan.

«Esku biek galdu ta bertso-papelak saltzen atara iaun bizimodu»

Olaizolak bere memoriten dinoskune leidute, urduliztarrak boza itzela eukan. Baztar duztiteti entzuten dakon eta jente nahiek erosten otsezan bertsoak, txakur txiker baten prezion, hau de, pezetako hamar zentimotan.

Idatzi iauzen bertso-txolen arteti hiru bai-zen ez dodaz topa, eztait gi- au egongo direzen.

Horretarango bi Paulino Uzkudun boxeolari famoson ganekok direz. Beste, lengo asten leidu zenduen (leidu bazenduen, klaro) axkora desafion ganeko ixen zan.

Gerrate sasoin Iparraldera jon ei zan gure Prudentzio, eskualden Mantxu eta Gipuzkun Besamotza esatentsena. Gerrastan Errenterik ikusi ei euden. Edadeko Urduliztarren batek Erandioko Abarrategitarren artegiez Trapagananera jon zala esan deust. Baie, gauze da eztakigule non akaba iauzen bere egunek gure urduliztarrak. Edo, iguel, ondino gure arten dau. ○

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



portu zaharra bar
 Portu Zaharra kalea 35
 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
 Tf. 94 460 20 33
 portuzaharra@portuzaharra.com
 www.portuzaharra.com



SOLAETXE
 Eguneko menua **Jatetxea** Karta
 Asteburuko menua Oilasko erretegia
 Sariena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



La Triangu.
 Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezi
 Hanburgesak Ogitartekoak
 Sanwichak Plater konbinatuak
 SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
 ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



BODEGUILLA BUTRON
 Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
 94 430 01 74
 www.bodeguillabutron.com



txakoli mota gane tx
 txakolina
 Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlana Parkea) Gohierri-Erandio
 Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA
 C/ Alangobarri n°3 C.P 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



CAFETERIA COSMOPOLITA
 Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo
 Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



JAN-TOKI ORMAZTEBAL
 Eguneko menua
 Menu bereziak
 Karta
 Erreserbak:
 94 476 2389
 607 21 89 61
 LUTXANA-ERANDIO



GURE ETXEA taberna
 HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
 Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80



Asador Cervecera BERANGO
 Oilasko erreak, indabak, txuletoia, arraina trianguetan
 Menu bereziak enkarguz - Gabonetako Menu bereziak
 Pello asado, txuletones, alubias, pescados a la brasa - Menus especiales por encargo - Menus especiales Navidad
 EGUSKIZA 32- 48940 BERANGO- Erreserbak 658 89 56 93- Tf. 94 668 13 34

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[pintxotan]

Plazer hutsa

Piperra eta tipula duen oilasko brotxeta



Mostazak eta ezti-saltsak zapore berezia ematen dio pintxoari

Itxura ederra izan ohi du egunero Portu Zaharra tabernako barrak. Euren gilda famatuz gain, mota ugariak pintxo goxo-goxoak egoten dira aho urtuen zain. Baina badira barrara heldu eta dida batean desagertzen diren pintxoak. Oilasko-brotxeta da, zalantza barik, horietakoa. Pintxoari kosk egin, eta zapore bonba baten leherketa sentitzen duzu ahoan, ia-ia deskribaezina, benetan gustagarria. Plazer hutsa.

Tripazorriak dantzan jartzen dituen pintxo hau prestatzeko, lehenengo oilasko papar osoa laukitxotan moztuko dugu. Ondoren, laukitxoak mostaza, piperrauts gozoa, gatz apur bat, piperrauts zuria eta berakatz olioagaz batuko dugu ondo nahastu arte, paparrak zapo-

reak ondo xurgatzen dituen arte. Bitartean, erretzeko piper gorria, piper berdea eta tipula garbitu eta moztuko ditugu (laukitxoaren tamaina berekoa).

Horren ostean, brotxeta hartu eta osagaiak honako ordenan zulatuko ditugu: piper berdea, bizpahiru oilasko-lauki, tipula, oilasko-lauki bi, piper berdea, bizpahiru oilasko-lauki eta piper gorria. Behin brotxeta eraiki dugula, olio berotan frijituko dugu, urre kolorea hartzen duen arte. Azkenik, pintxoari txapela jartzeko, ukitu berezia ematen dion mostaza eta ezti saltsa gehituko diogu. Eta kitto, gozatzera! o

Osagaiak: erretzeko piper gorria, piper berdea, tipula, oilasko papar osoa, mostaza, ezti saltsa, berakatz olio, piperrauts gozoa, piperrauts zuria, eta gatz




BASARTENA
URDULIZ
 Teléfono: 946 761 128



JUAN-MARI
 Harategia eta txarkuteria
ARTESANA
 LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
 Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!
 Alangobarri 10, ALGORTA
 Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI
 edantokia
 frontoi partikularra
 Aita Gotzon 4, URDULIZ
 Tf. 94 676 07 15



Taberna Berri
 Sarrikobaso 4 -ALGORTA
 Tf. 94 430 64 93

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Ariiluze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixareriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

Turikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Angeruaeren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGUFI 48990 GETXO

[horoskopoa]

<p>URA</p> <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Eta? Zertaz mozorrotu behar duzu aurten? Barrero ere atletaz? Beno, agian lagunei otuko zaie beste zer edo zer, beraz, presta zaitetz, edozer gauza gerta liteke...</p>	<p>OTSOA</p> <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Hotza gura zenuen, honatx! Uda luzatu zen moduan, negua ere berea egiten ari da; orain ez zaitetz kexa! Jantzi jaka potoloa eta zoaz kalera elurretan jolastera!</p>	<p>ADARRA</p> <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Dena joango zaizu ederto eta, hemendik aurrera, ez duzu ohikoaz gainera lan ordu gehiago sartu beharko lanean. Zorionak eta urte barri on, oraingoan bai!</p>
<p>AITZURRA</p> <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Gogotsu hasi zenuen urtea, egunero kirola egiten eta erretzeari utzita. Baina, urtero legez, ezer gixxi irauin dizu asmo onak. Beno, hurrengoan izango da!</p>	<p>HOSTOA</p> <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Inauteriak hemen dira, hori duzu hori emozioa! Batzuek buruhausteak dauzkate mozorroa topatzeko, zuk hamaika ideia daukazu: jantzi guztiak eta gozatu, bat egun bakoitzeko.</p>	<p>EGUZKIA</p> <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Badirudi apurka-apurka zure logaletik ateratzen hasi zarela, lotsati samar bada ere. Egunak luzatzen hasi dira eta zure printzak gero eta beroagoak dira. Ondo etorri bizien mundu honetara!</p>
<p>GARIA</p> <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Azterketak amaitu eta ia denak gaintitu dituzu, zorionak! Maiatzerako badakizu, ez loak hartu eta has zaitetz berehala lanean, gorde udarako parranda eta gaupasaren bat.</p>	<p>LASTOA</p> <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Urtea zorioneko hasi duzu, ezta? Txorrutu zaude zure maiteñoagaz, baina gehiagotan ikusi gura zenuke. Horrela hobeto da, ez baitzarete alkarregaz horren erraz aspertuko.</p>	<p>IRATZEA</p> <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Sasoia ez bada ere, oportetan joango zara, zu bai harroa! Nora eta, Costa Ricara, hori pagotxa! Beste denak krisiak itota eta zu munduan zehar, markesen moduan, hurrengoan ni ere gonbidatu.</p>
<p>META</p> <p>(Irailak 17 urriak 16) Urtarrileko aldapa luzea gertatu bazitzaizun, presta zaitetz! Hemen dator... otsaileko hirumilakoa. Arnas hartu, horrela jarraituz gero, imajina egizu zelakoa izango den martxokoa...</p>	<p>HAZIA</p> <p>(Urriak 17 azaroak 15) Hau bizitza gogorra hau! Publizitate katalogoak zabiltza aurrera eta atzera, sekulako pagotxak topatu guran. Batzuetan bai, ofertak izango dira, baina inork ez duzu ezer oparitzen.</p>	<p>NEGUA</p> <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Pozarren bizi zara, baina, otu al zaizu kontu korronteari begiratzea? Gabonen eta beherapenen ostein, dardarka daukazu gaixoa. Urtea hasi besterik ez da egin: emoiouzu tregua txiki bat, arren!</p>

Kopiak **SALGAI**
UK aldizkariaren bulegoan

Martikoena 16,
2. solairua
Algorta (Getxo)

Alangoko
Osasun Zentroaren alboan

Urbe Kostako aldizkariaren ekoizpena **uk**


BAI Bidean
AENOR Enpresa Registrada ER-1891/2001
AENOR Gestión Ambiental CGM-02.006

KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA

BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz



HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuma

1. Pilota jokoen jarraitzaile. 2. ... egin, ospa egin, alde egin, hanka egin. Aldiz. 3. Ibar, arro. Solasaldiaren harian, amore ematen dela edo adierazteko erabiltzen den hitza. 4. Aldaketa, trukatzeta. Röntgen. 5. Indioaren ikur kimikoa. Garai batekoa, aspaldikoa. 6. Frantziako hegoaldeko ibai, Garonaren adarra. Pluralean, talde handitan bizi den intsektua. 7. Zallako auzoa. Utik, utikan! 8. Intsektu bizkarroia da, ugaztunen odola xurgatuz bizi dena. Arrainen galgari. 9. Bokal mehea. Irensten duena. 10. Kaletarrak.

Goitik behera

1. Loraren organo ema. Gure aldizkaria. 2. Noain Elortzibarreko auzoa. Lehenengo bokala. 3. Toki, gune. Guztiz, oso, erabat, arras. 4. Japoniako hirugarren hiri handiena. Lur kolore iluneko. 5. Tona balio du. Toka, nator. 6. Lehenengo hizki biak. Metal zuri grisaxka, erraz xaflatzen dena. 7. Ipar Euskal Herrian, limoi. Samarioa balio du. 8. Auhenska, kexuka. Bihi, garau. 9. Pinu mota. Batez ere Gabonen eta Ekuatoreko Ginean hazten den zuhaitza. 10. Gisara, modura. Txistuak, istuak.

Soluzioa

K	V	E	M	U	K	E	L	V	K
V	E	L	S	N	E	R	I	U	
U	M	V	I	R	O	Z			
U	N	V	A	R	V	X	T	O	
K	V	I	T	O					
V	O	K	O	Z	T	V	N	I	
R									
V	A	R	I	T	N	K	V	S	
R									
E	V	Z	T	A	L	E			

ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Zein da
Itziar Zigaren
azken liburuaren
izenburua?

> Aurrekoaren erantzuna: Getxoko Andra Mari eliza
> Irabazlea: **Iurgi Perez**

*deitu telefonoz: 944 911 337

Zein arrain
erretzen dute Aratuste
Martitzenean?

- **Hegaluzea**
- **Sardina**
- **Guaitoa**

> Aurrekoaren erantzuna: Agate Deunari
> Irabazlea: **Maria Barrena**

*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA **Oinutsik**
kontsulta podologikoa
Zubigane 4, Sopelana
Tf. 94 404 74 20
oinutsik@euskalnet.net



SARIA **La Gusana**
liburudenda
Tellagorri plaza, Algorta
Tf. 94 491 14 12

lagusana

Bidalari erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 944 911 337 telefonora deitu



AITOR ETXEBARRIAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

TXARRIBODA SOPELAN, 1960

“Casa Herreria”-ren atzealdean aterata dago argazkia. Etxebarria familiarena zen (Sebastian Etxebarria eta Maria Etxebarria emaztea). Gaurko udaletxetik oso hurbil zegoen, Akilino Arriola kaleko BBK-ko bulegoa dagoen lekuan. Ez zeukaten ganadurik, baina oiloak, untxiak, bizpahiru txarri e.a. bai. Azken horietako bat hor dugu goizean hilda, gero erre eta arratsaldean Jesus Uriartek, Larrabasterrako abere-hiltzaileak, zatikatzeko prest, argazkiak erakusten duenez. Ez daude argazkian, ez etxeandrea, ezta Aitor mutikoa ere, seme bakarra. Etxekoandrea tripak garbitzen ibiliko zen odolosteak egiteko eta Aitor hortik zehar olgetan. Gero danok jatera, (azken baten hori da txarriboda), familiakoak, senitartekoak, etab. ○

Izenak: Jesus Uriarte (GB), Victor Etxebarria (GB), Constantino Lamas "Tinín", Feli Etxebarria (GB), Antonio Lamas, Pilar Etxebarria (GB), Sebastian Etxebarria (GB), Batxi (GB), Miren Corbera.

ALAIA MARTIN > bertsolaria

“Batzuetan irudimena askeegi uzten dut eta zaila da lurreratzea”

Testua: **Nerea Gijarrubia**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Sentikorra eta aktiboa.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Askotan, *Midnight in Paris*, esaterako.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?

Zinemagintzan, eta horretarako burutu ditut ikasketak. Egia esan zaletasun mordoa daukat garatzeke.

Ohitura txarren bat?

Batzuetan irudimena askeegi uzten dut eta zaila egiten zait lurrera itzultzea.

Aitor dezakezun bizio bat.

Bainu luzeak hartzea, baina hau beharbada ohitura txarretan sartu behar nuen, ekologiaren izenean.

Zein da zure ametsetakoa bat?

Amesteko eta ametsak betetzeko indarra izatea.

Gorrotu duzun topikoa?

“Teoria ondo dago, baina...”.

Bertso-saio batean gertatu zaizun bitxikeriaren bat?

Uxue Alberdi eta biok Txillida Lekuko inaugurazioara joan eta azafatekin nahastu gintuzten, nonbait ez genuen bertsolari itxuririk.

Nori egingo zenioke elkarrizketa hau?

Taxi-gidari bati.

Zein barri gura zenuke irakurri biharko egunkarian?

Euskal preso politikoak eta iheslariak etxean daudela.

Bertso-saio zirraragarriena?

Barrua irauli eta bizitza bertsotan pasatzeko gogoia pizten didan edozein. ○

LABURREAN— Hirugarren lotu zen Alaiia Martin (Oiartzun,1987) iazko abenduan ospatu zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan, Sarriegi eta Gaztelumendiren ostean. Gaztea den arren, daborduko, bertsolari munduan urrats sendo eta adierazgarriak ematen ari da; bide horren lekuko dira hamaika plaza eta txapelketa. Oiartzungoak Ikus-entzunezko ikasketak egin ditu eta UK-ri aitortu dionez horretan aritu gura luke. Horrez gain, Alaiia Bertso Eskolaren antolakuntza-taldeko kide da eta, gaur egun ere, Hamaika Bertute deituriko ekimenean dihardu.

ALEX TXIKON

GAILURRA NON, EUSKARA HAN.

Sestak:

Unibertsitateko Aisia Kulturala

Getxo

2011-12 Ikasturtea // 2. seihilekoa

IKASTAROA:

ERLIJIO ANIZTASUNA ETA ERLIJIOEN ARTEKO ELKARRIZKETA

Irakaslea: Luzio Uriarte

Lekua: Algortako Kultur Etxea (Villamonte)

Ordutegia: 19:00-20:30 (astearteetan)

Egutegia:

Otsaila	21, 28
Martxoa	6, 13, 20, 27
Apirila	17, 24
Maiatza	8, 15

Garai batean erlijioa desagertzeko sinesmena zela pentsatu bazen ere, denborak aurrera joan ahala, antzinako iragarpena bete beharrean, gaur egungo historia ulertzeko nahitaezko datu bihurtu da. Urte gutxiko denboraldian gauza asko aldatu dira gure gizartean eta horietako bat erlijioak duen balioespena izan da, baita erlijioari buruzko kontzeptuak eta irudiak ere.

Lau dira kurtso honek bete nahi dituen helburuak: lehenik, erlijioaren kontzeptua argitzea; bigarrenik, erlijioari dagokionez, Euskal Herriko gaur egungo egoera deskribatzea; hirugarrenik, erlijio tradizio nagusien gain-gaineko aurkezpena eskaintzea; azkenik, erlijioen arteko elkarrizketaren erronka aurkeztea.

Kurtso amaieran ikasleak ideia orokor bat bereganatuko du bai erlijioan ezkututzen den giza aberatasunaz, bai erlijioan agertzen diren erronka saihestezinez.

INFORMAZIO GEHIAGO: Algortako Kultur Etxea (Villamonte, A-8) // Tel.: 94 491 40 80